

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# **ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA**

**2018ko abenduaren 15a - 2019ko abenduaren 14a**

**Iñigo Urrutia Libarona**

**aldezlea**



## AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b> .....	5
<b>1. 2019ko aztergaiak</b> .....	7
1.1. Bulegora etorritako pertsona kopurua eta aztergai kopurua .....	7
1.2. Bulegora joan diren pertsonen generoa.....	9
1.3. Bulegora joandako pertsonen erabilitako hizkuntza.....	10
1.4. Aztergaiak, kolektiboaren arabera: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta "Beste batzuk".....	11
1.5. Aztergaiak campusaren arabera.....	13
1.6. Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera.....	15
1.7. Aztergaien sailkapena.....	17
1.7.1. Kolektiboek planteaturiko aztergai motak.....	17
1.7.2. Emakumeek eta gizonen planteaturiko aztergai motak.....	20
1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak.....	21
1.9. Bulegoaren esku hartzea.....	32
1.9.1. Baietsitako kexen gaiak.....	34
1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak.....	37
1.10. Jasotako erantzuna.....	38
1.11. Inplikaturiko zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak.....	38
<b>2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk</b> .....	39
2.1. G9 taldeko defendatzaileekiko lankidetzak.....	39
2.2. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XXII. Bilkura.....	39
2.3. CEDUren XII. Batzar Nagusia.....	39
2.4. CEDUren defendatzaileekiko lankidetzak, foroetan parte hartuta .....	40
2.5. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluetan parte hartzea.....	40
<b>3. Urteko txosten ekonomikoa</b> .....	40
<b>4. Ondorioak eta gomendioak</b> .....	41
<b>I. ERANSKINA: 2019ko aztergaiaren zerrenda</b> .....	50



## Sarrera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuetako 77. artikulua betetze aldera, Aldezlearen zerbitzuaren urteko jardueren txostena aurkezten diogu Unibertsitateko Klaustroari. Txostenak 2018ko abenduaren 15etik 2019ko abenduaren 14ra bitarteko aldiaren berri ematen du.

Plazer bat da niretzat aldezlearen urteko txosten hau aurkeztea; bertan, zerbitzuak 2019. urtean eginiko jarduerak biltzen dira, eta joan den urtean landu genituen gaiak Unibertsitateko Klaustroari eta unibertsitateko kide guztiei ezagutzeko aukera ematen zaie. Aztertu ditugun kasu gehien-gehienak eskatzaileek hala eskatuta planteatu dira, baina kasuren batean bulegoaren beraren ekimenez ere jardun dugu.

UPV/EHU osatzen dugun pertsonen kolektibo handiaren eskubideen bermeaz kezkatzea eta arlo horretan etengabe hobetzea oinarrizko faktoreak dira, gure unibertsitate publikoaren garapenerako. Guztion eskubideak bermatzea modu egoki bat da, gizarteari eskaintzen diogun zerbitzua hobetzeko eta bikaintasunaren bilaketarako dugun konpromisoa berritzeko. Sinetsita gaude unibertsitate arloan bikaintasuna bilatzea ingurune hurbilago eta adeitsuago bat sortzen jakitea ere badela, non pertsonen eskubideak errespetatuko baitira.

Aldezlearen bulegoaren antolakuntzari dagokionez, duela pare bat urte ezarritako funtzionamendu sistemarekin jarraitzen dugu, hala, asteko lanaldia Donostiako eta Leioako bulegoen artean banatu dugu, eta bisita hitzartuak egin ditugu Arabako Campusera, unibertsitateko kideekiko hurbiltasun handiagoa bilatu nahian.

Aldezlearen jarduteko prozedurak ezagunak dira, aurreko memorietan deskribatu baitira. Orduan esandakoa berresten dut, eta soil-soilik horri lotutako oinarrizko zenbait ideia azpimarratu nahi nituzke: egin ohi diren zereginak hiru motatakoak izan daitezke:

- **Kontsultak:** pertsona interesdunek egiten dituzte kontsultak, eta jakin nahi izaten dute beren eskubideek zer irismen zehatza duten edo nola babes ditzaketen, eta zein den unibertsitateko organo eta zerbitzuen jarduera eremua. Aholkularitza zereginak dira.
- **Rexak eta erreklamazioak:** UPV/EHUko kideek edo UPV/EHUkoak izan gabe interes legitimoa duten pertsonak planteatzen dituzte, beren eskubide edo interes legitimoak urratuak izan direla irizten diotelako, administrazioaren jardueragatik edo jarduera ezagatik edo UPV/EHUko organoek, zerbitzuek, agintariak edo irakasleak hartutako erabakiengatik. Zerbitzu honen hurrengo jarduera izan daiteke; alde batetik, orientazio edo jarraipena egitea, non interesdunari adierazten baitzaio zer urrats egin behar dituen bere kasua

konpontzeko, baldin eta Aldezlearen jarduera galarazita balego, esate baterako, prozedurazko ohiko bideak agortu ez direlako; eta bestetik, unibertsitate erakunde eskudunari gomendio bat helaraztea, dagokion azterketa kontrastatua egin ondoren. Gomendio horrek araudia betetzeari buruzko oroigarri bat eduki dezakete, edo kasuari aplikatu dakiokkeen arauen bat interpretatzeko moduari buruzko iradokizun bat; araua aldatzeko proposamen bat ere eduki dezake, edo arau edo akordio berri bat onartzeko aukera iradoki, ematen dugun unibertsitate zerbitzu publikoa hobetzeko, edo proportzionaltasun epai bat egin, babestea merezi duen eskubide edo interesen bat bermatzeari begira.

- Bitartekaritza-kontziliazio prozesuak: unibertsitateko bi kideren edo gehiagoren artean sortutako gatazka kasuetan planteatzen dira. Konponbidea bilatzeko, inplikaturako pertsonen arteko elkarrizketa bilatzen da, eta Aldezleak bitartekari gisa jarduten du, bi aldeen arteko akordio egoki bat bilatu nahian.

Aipatu berri ditugun hiru jarduera motez gainera, bulegoan "gertakizunen kontaketa" ere jasotzen dira, eta horien bidez, interesdunek egoera edo gertakizun baten berri ematen diote Aldezleari, inolako jarduerarik hasteko eskatu gabe, edo ez jarduteko eskatzen.

Gure bulegoetara beren kasua aurkeztera datozen pertsonak beren eskubideak ez direla bermatu behar bezala ulertu dute, eta beren arazoaren berri ematen digute, lagunduko diegulakoan. Garrantzitsua da azpimarratzea unibertsitatea hainbat zeregin betetzen dituzten pertsonak osatzen dutela eta, kasu bat planteatzen digutenean, gure arreta eta zerbitzu zor diegula. Edonola ere, aldezlearen zeregin instituzionala unibertsitatearen interes orokorra bilatzea da, egoeraren ñabardura guzti-guztiak ulertzen saiatuta, kasu bakoitzean jarrera zuzena proposatzeko eta horri eusteko. Horrekin zera esan nahi dugu: gure zerbitzura datozenei ez diegu beti-beti arrazoia ematen, eta, hortaz, batzuetan haien itxaropenak zapuzten ditugu. Haiei guztiei barkatzeko eskatu nahi diegu, baita ulertzeko ere, lehian diren interesak edo araudi aplikagarria aztertuta gerta daitekeelako guk proposatutako konponbideek batzuetan haien interesak erabat ez asetzea.

Beste batzuetan, keak eta erreklamazioak aztertu ondoren unibertsitateko jarduera desegokia izan dela ondorioztatzen dugunean, gomendio edo iradokizun bat bidaltzen diogu eraginpeko zerbitzuari, bere jarduera aldatzeko eskatuz. Zenbaitetan, dena delako unibertsitate zerbitzuak legalitatearen arabera jardun duela ikusten dugu, baina, gure iritziz, eskubideen zaintza onenak edo administrazio egokiaren printzipioak bestelako jarduerak eska ditzakete. Horrelako kasuetan, baliagarritasunari eta eskubideen hedapen gorenari gehien egokitzen zaien interpretazioa gomendatzen dugu.

Aldezleak bereziki azpimarratu nahi du unibertsitatean eskubideen kultura indartzearen beharra; hala unibertsitateko kideek nola administrazioak horiek errespetatuz jardun behar dute, egunez egun pertsona guztien eskubideak errespetatzeko balioak eraiki eta berreraiki daitezen.

Txosten honen edukiak aurrekoen oinarrizko egitura bera du, gaien eta haien ezaugarrien bilakaera aztertu ahal izateko. Hasteko, 2019. urtean bulegora iritsi diren kasuak deskribatuko ditut, aurreko urteetakoekin erlazioan jarrita, horren gaineko zenbait ohartarazpen egiteko. Jarraian, bulego honek 2019an egindako beste jarduera batzuk deskribatuko dira, hala ohikoak nola beste jarduera batzuei lotutakoak, eta urteko txosten ekonomikoa aurkeztuko da. Azkenik, txostenaren amaieran zenbait gogoeta orokor egiten dira. Sartuta dago, halaber, eranskin bat, non 2019an aztertutako gai guztiak zerrendatzen baitira taula batean.

Amaitzeko, agintari akademiko guztiek 2019. urtean ere UPV/EHUren Aldezlea erakundearekin izan duten prestutasuna, harrera eta kontsiderazioa eskertu nahi ditut. Errektore andreari eta haren gobernu talde osoari eskerrak ematen dizkiet eskatu dudan guztietan harrera egin didatelako, batzuetan gai desatseginak landu behar izan baditugu ere. Eskerrik asko zuen prestutasun, laguntza eta ulermenagatik, eta Aldezlea erakundeari erakutsitako errespetuagatik. Horiek guztiek erakunde honen independentzia errespetatu dute, eta hori guztiz beharrezkoa da haren funtzionamendu zuzenerako. Era berean, emandako laguntza eskertu nahi diet ikastegietako zuzendari eta dekanoguztiei, sailtetako zuzendariei, gerentziako taldeari eta arlo nahiz ataleko arduradun guztiei. Eta eskerrik asko ere Klaustroari niregan jarritako konfiantzagatik.

Amaitzeko, nire eskerrik zintzoena adierazi nahi diet Aldezlearen zerbitzuko lankide Ana Saralegiri eta Maite Estévezi, haien pazientzia eta eraginkortasunagatik eta erakundearekin duten konpromisoagatik. Haiek gabe, ezinezkoa izango litzateke jarraian zerrendatzen diren jarduera asko eta asko egitea.

## 1. 2019ko aztergaiak


Atal honetan, bulegoak 2019an landutako aztergaiak eta haien oinarrizko ezaugarriak deskribatuko ditugu. **I. ERANSKIN**ean urte osoko aztergaien zerrenda biltzen da.

### 1.1. Bulegora etorritako pertsona kopurua eta aztergai kopurua

2019. urtean, 130 pertsona joan dira aldezlearen bulegora, eta 138 aztergai planteatu dituzte guztira (Kontsultak, Kexak eta Bitartekaritza eskaerak kontuan hartuta). Datu horiek 2018ko memorian aurkeztutako oso antzekoak dira; izan ere,


aurten, 5 pertsona gutxiago joan badira ere, azkenean aztergai kopuru berbera planteatu da; horrek esan nahi du, beraz, pertsona batek gai bat baino gehiago planteatu dituela, beste batzuetan gertatu izan den bezala. Orotara, UPV/EHUren Aldezlearen zerbitzua martxan jarri zenetik, 960 pertsona igaro dira bertatik (batzuk hainbat urtez joan dira), eta 1.094 kasu planteatu dira.

Lehen grafikoan ikus daitekeenez, zerbitzuaren lehenengo hiru urteetan gora egin zuten arian-arian bai kasuek bai hartutako pertsonen kopuruak. Joera horrek beheranzko bidea hartu zuen 2015. eta 2016. urteetan. 2017. urtean, berriz, Aldezlearen aldaketarekin bat eginda, nabarmen egin zuten gora pertsona eta aztergai kopuruek, eta hurrengo bi urteetan kopuru ertainetan kokatu gara berriro ere. 2018. eta 2019. urteak zortzi urteko batez bestekoaren apur bat gainetik daude.




Hurrengo ataletan, aipatutako 138 aztergaiak hartuko ditugu oinarrizko erreferentziatzat. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da, aztergai horiez gainera, aurten 11 pertsonak beste 12 aztergai gehiago aurkeztu dituztela bulegoan. Pertsona horiek ez zuten aurkeztu ez kontsultarik, ez kezarik, ez bitartekaritza eskaerarik; haatik, unibertsitatearentzat garrantzitsuak izandako gertakizun batzuen berri eman zuten, aldezleak jakinaren gainean egon behar zuela kontsideratu zutelako. Bigarren grafikoan, azken urteetan jasotako "gertaeren kontakizunen" kopurua ageri da.






### 1.2. Bulegora joan diren pertsonen generoa

Aldezlearengana jo duten 130 pertsonen artetik, 77 emakumeak ziren, eta 53, gizonak. Hirugarren grafikoa, aldezlearen zortzi urteko ibilbideari dagozkion maiztasunak ematen dira, eta laugarrenean, ehunekoak.







Laugarren grafikoa ikus daitekeen moduan, lehenengo bi urteetan gertatzen zenaren aurrean, azken sei urteetan gure zerbitzura joan diren pertsonen sexuen arteko proportzioa UPV/EHUren barruko proportzio errearen antzekoa da (gaur egun gure unibertsitatean % 46,3 gizonak dira, eta % 53,7 emakumeak).

### 1.3. Bulegora joandako pertsonen erabilitako hizkuntza

Aipatutako 138 kasuetatik, 59 euskaraz planteatu ziren, eta 79, gaztelaniaz.






Seigarren grafikoan ikusten denez, euskararen erabilera gaztelaniarenarekiko proportzioan, aurtan nabarmen handiagoa izan da aurreko urteetan baino. Lehenengo bost urteetan, euskararen batez besteko erabilera % 17,4koa izan zen, eta 2019an, berriz, euskara erabili da kasuen % 42,8n. Hiru kasutik bat baino gehiago euskaraz planteatu eta ebatzi dira. Azken hiru urteetan euskararen igoera nabarmena izan da, eta espero dugu etorkizunean ere horrela jarraitzea.


#### 1.4. Aztergaiak, kolektiboaren arabera: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta "Beste batzuk"

Kolektiboaren arabera, 2019an, ikasleek 59 gai planteatu dituzte; irakasle-ikertzaileek, 48; AZPko langileek, 18; eta, unibertsitatekoak ez diren pertsonen, berriz, 13 ("Beste batzuk" kategorian). Neurri apalagoan bada ere, unibertsitatekoak ez diren pertsonen kasuak jasotzen jarraitu dugu (batez ere, sarbideari, matrikulari, izen emateari, plazen deialdiari eta ordezkapen poltsei lotutako gaiak).


Zazpigarren grafikoan, datu horiek aurreko urteetakoekin alderatuta ematen ditugu. Ikus daitekeenez, "Beste batzuk" kolektiboak planteatutako gai kopuruaren jaitziera nabarmentzen da. Ostera, irakasle-ikertzaileek planteatutako gaiak bere horretan geratu dira; ikasleek aurkeztutakoak apur bat igo dira; eta, AZPko langileek planteatutako gai kopuruaren igoera nabarmendu da, aurreko urteko zifrekin alderatuta, 2019an maila gorenera iritsi baita.



Zortzigarren grafikoan irakasle-ikertzaileen, AZPko langileen eta ikasleen datuak aurkezten dira, ehunekotan. Aurtengoan, pisu handiagoa hartu dute AZPko langileen kasuek; bien bitartean, irakasle-ikertzaileek eta ikasleek planteatutako aztergaien arteko erlazioa egonkor mantentzen da, hamar puntu inguruko diferentzia izanik bien artean.



Bestalde, 2019an, ikasleek planteatutako 59 gaien artean, 41 graduiko ikasleek aurkeztu dituzte, eta 18, graduondoko ikasleek (9. grafikoa).




Graduiko ikasleek 2019an planteatutako kasuen kopuruak joan den urteko beheranzko joerari eutsi dio, erakunde honen zortzi urteko ibilbidearen batezbestekoaren azpitik kokatuta. Osera, graduondoko ikasleek planteatutako aztergaien kopuruak nabarmen egin du gora azken urte honetan, orain arteko kopururik altuena erregistratu baita. Grafikoki bi kurben arteko distantzia murrizten ari dela ikus daiteke; hala, 2019an, ikasleen kolektibotik aldezlearengana jo duten pertsona guztien artean hirutik ia bat graduondoko ikaslea izan dela baieztatu dezakegu. Aurrerago aztertuko dugu kolektibo horrek zer-nolako gaiak planteatu dituen.


### 1.5 Aztergaiak campusaren arabera

Bulegoan unibertsitateko kideei arreta eginez jaso ditugun 125 aztergaietatik, 44 Gipuzkoako Campusetik iritsi dira; 64, Bizkaiko Campusetik; eta 17, Arabako Campusetik (dagoeneko esan dugunez, UPV/EHUkoak ez diren pertsonen beste 13 aztergai iritsi zaizkigu). Datu horiek aurreko urteetakoekin alderatuz gero (10. grafikoa), hainbat ondorio atera ditzakegu: a) 2014. urtera arte, kasuak igo ziren campus guztietan; b) 2014tik aurrera, aztergaiak behera egin zuten Bizkaiko eta

Arabako campusetan, eta gora, berriz, Gipuzkoakoan; c) 2016. urtetik aurrera, igoerak hauteman ziren hiru campusetan, baina 2018an kasuek nabarmen egin zuten behera Gipuzkoan. 2019an, joera hori aldatu da, eta Bizkaiko eta Arabako campusetik jasotako kasuen kopurua apur bat jaitsi da, baina Gipuzkoatik jasotako kopuruak gora egin du berriro, azken zortzi urteetako batezbesteko balioa gaindituta.



Hamaikagarren grafikoak ehunekotan ematen dizkigu datu horiek. Egin daitekeen irakurketa da campus bakoitzeko aztergaien kopurua hurbil dagoela campus bakoitzak gizarte errealitatean ehunekoetan duen ordezkapenetik. Hala, Bizkaiko Campusetik eskatu zaizkio jarduera gehien Aldezlearen zerbitzuari; bigarren lekuan, Gipuzkoakoa dago, eta hirugarrenean, Arabakoa.



### 1.6. Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera

Lehen taulan, Aldezlearen bulegora laguntza eske jo duten pertsonen ikastegien eta zerbitzuen zerrenda jaso dugu. Bertan, aztergai mota guztiak zenbatzen dira, nola kexak (gero baietsiak izan ala ez), hala kontsultak eta bitartekaritza eskaerak.

Hurrengo taularen datuak erlatibizatu behar direla aipatu behar dugu: soilik aztergaia nondik datorren adierazteko balio dute, eta hortik kanpo ezin dira ondorioak atera. Aztergai gehienak, eskuarki, ikastegi handienetan biltzen dira, eta subjektuen pluraltasun bati eragiten dioten aztergaiak izateak ere eragina izaten du; hortaz, ikastegi edo zerbitzu beraren estatistikak edo datuak asko alda daitezke urte batetik bestera askotariko faktoreen eraginez.

## 1 taula. Aztergaiak planteatu dituzten pertsonen ikastegiak eta zerbitzuak

Ikastegiak eta Zerbitzuak	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Arabako Biblioteka	-	-	-	1	-	-	-	-
Arkitektura GET	4	6	4	2	-	-	6	3
Arte Ederren F.	1	5	1	4	2	1	2	5
Zientzia eta Teknologia F.	3	6	11	7	4	7	7	8
Berrik., Gizarte Kompr. eta Kulturgintzaren arloko Errek.	-	-	-	1	-	1	1	-
Bilboko Hezkuntza F.	5	3	4	4	7	7	4	6
Bilboko Merkataritza Ganberako UE	-	-	-	2	-	1	-	-
Bizkaiko Biblioteka	-	-	-	-	-	-	-	2
Campuseko Gerenteordetza	-	2	-	-	-	-	2	3
Ekonomia eta Enpresa F.	5	24	5	3	5	13	11	10
Enplegu Gunea	-	-	-	-	-	1	1	-
Errektoregoa	1	-	-	-	-	-	-	-
Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errek.	-	-	-	-	-	-	-	1
Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	-	-	-	-	1	1	-	-
Farmazia F.	2	4	4	1	2	2	1	2
Gasteizko Erizaintza UE	-	1	1	-	2	2	1	-
Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza E.	2	4	6	6	2	2	1	1
Gerentzia	-	-	1	-	-	-	-	-
Gipuzkoako Biblioteka	-	1	-	4	2	1	2	-
Gipuzkoako Esperientzia Gelak	-	-	1	-	7	-	1	-
Gipuzkoako Ingeniaritza E.	2	4	2	1	2	10	4	9
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	6	8	17	9	2	6	5	1
Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errek.	-	1	-	-	-	1	-	-
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.	1	7	10	11	9	21	7	13
Hezkuntza eta Kirol F.	3	1	4	6	3	4	7	1
Idazkaritza Nagusia	-	1	2	1	-	-	-	-
Ikasleen kontseilua	2	3	1	1	-	-	-	-
Joxe Mari Korta Zentroa	-	-	-	1	-	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza E.	15	13	13	12	6	11	14	6
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errek.	-	-	-	-	-	-	-	2
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	1	-	-	-
IKTen Gerenteordetza	3	-	-	1	2	2	1	1
Ikuskaritza Zerbitzua	-	-	-	-	1	-	-	-
IMHko Ingeniaritza Dualaren UE	-	-	-	4	6	7	-	1
Informatika F.	-	2	4	2	-	-	3	4
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	1	-
Kimika F.	-	-	1	-	-	-	1	4
Kirol Zerbitzua	-	-	-	-	1	1	-	1
Lan Harreman eta Gizarte Langintza F.	1	4	1	-	1	-	-	1
Letren F.	2	6	16	7	3	3	7	7
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	5	6	4	2	10
Materialen Fisika Zentroa	-	-	-	-	1	-	-	-
Medikuntza eta Erizaintza F.	13	6	17	12	19	15	17	11
Psikologia F.	5	4	1	6	9	10	5	1
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	-	1	2	-	-	-	1
Prebentzio Zerbitzua	-	-	-	-	-	1	-	-
Zuzenbide F.	6	7	9	9	5	9	6	10
Beste batzuk***	15	16	26	14	8	20	18	13
<b>Guztira</b>	<b>97</b>	<b>140*</b>	<b>164</b>	<b>139</b>	<b>119**</b>	<b>164</b>	<b>138</b>	<b>138</b>

\* Hiru aztergai ikastegi edo zerbitzu bat baino gehiagoko pertsonak planteatu zituzten. Horregatik, zutabe horren emaitza osoa 137 izan beharrean, 140 da.


\*\* Bi aztergai ikastegi edo zerbitzu desberdinetako pertsonak planteatu zituzten. Hori dela eta, zutabearen kopuru osoa, 117 izan beharrean, 119 da.

\*\*\*UPV/EHUkoak ez diren pertsonak planteatutako aztergaiak sartzen dira.



## 1.7. Aztergai motak

Aztergaien izaerari erreparatuz gero, 2019an, 106 kontsulta, 31 kexa eta 1 bitartekaritza eskaera jaso ditugu. Hamabigarren grafikoan, datu horiek aurreko urteetakoekin alderatu ditzakegu.



Ikusten denez, pixkanaka jaisten ari da kexen eta bitartekaritza eskaeren kopurua, eta, bien bitartean, kontsulta modura planteatutako aztergaien gorako joera (datu atipikoak izan ziren 2016an eta 2017an) mantentzen da.

Aztergai mota horiek zortzi urte hauetan izandako eboluzioa aztertzen badugu, nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, kontsulteren igoerari lotuta aipatzen genuen joera, 2019 kontsulta gehien planteatu diren bigarren urtea izan baita. Bigarrenez, kexek 2015. urteaz geroztik hartutako beheranzko joerari eusten diote. Aurreko txostenetan aipatu izan dugun bezala, kontsulta oso sistema erabilgarri bihurtu da aurkeztutako kasu askoren trataera bideratzeari begira. Prozedura arin bat da, azkar analizatzea, ikertzea eta kontrastatzea eskatzen duena, planteatzen zaigun gaiari konponbide egoki bat emateko; horrela, kexaren prozedura, zeina burokratikoagoa baita, dokumentuen fase landuagoak eskatzen dituzten egoerarako uzten da.


### 1.7.1. Kolektiboek planteaturiko aztergai motak

Jarraian, 13., 14. eta 15. grafikoetan aztergai mota (kontsulta, kexu eta bitartekaritza eskaera) bakoitzaren bilakaeraren berri ematen dugu, kolektiboka.

Hamahirugarren grafikoan ikus daitekeen moduan, azken urte honetan kontsulten kopuruak gora egin du kolektibo guztietan, "Beste batzuenan" izan ezik, segmentu horretan nabarmen jaitsi baita planteatutako aztergaien kopurua, baita, beraz, kontsulten kopurua ere.


Nabarmentzekoa da irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen kolektiboen igoera etengabea, kontsulten kopuru handiena eman baita erakunde hau martxan jarri zenetik. Ikasleen kolektiboan ere gora egin dute, kontsulta kopuru gehieneko bigarren urtea izan baita 2017an izandako pikoaren ondoren. Prozedura honek unibertsitateko kideak orientatzeko eta informatzeko aukera ematen du, baita planteatutako arazoak konpontzeko kudeaketa azkarrak egitea ere.

Ikasleei lotutako eragin handieneko aztergaiei dagokienez, ebaluazioari, matrikulari, bekei eta laguntzei buruzko kontsultak dira ugarienak.




Kexei dagokienez –ikus 14. grafikoa–, iazkoarekin alderatuz gero, aurten behera egin dute irakasle-ikertzaileen eta "Beste batzuk" kolektiboetan, eta apur bat gora, berriz, ikasleen eta AZPko langileen artean. Kexek zortzi urteetan izandako bilakaera aztertzen badugu, gorabeherak hautematen dira, baina beheranzko joerak nagusi izaten jarraitzen du.

Unibertsitateko kide bat unibertsitate organo batek hartutako erabaki batekin ados ez dagoenean planteatzen dira kexak; izan ere, kide horren iritziz, erabaki horrek haren eskubideren bat urratzen, edo haren askatasunen bat murrizten du, justifikaziorik gabe edo neurritz kanpo.




Bitartekaritza eskaerei (15. grafikoa) dagokienez, 2019. urtean bitartekaritza eskaera bakarra jaso da, eta une honetan UPV/EHUrekin lotura ez duen pertsona batekin egin zuen, zeinak bere lantaldean zegoen kide batekin izandako gatazka bat bideratzeko interesa baitzuen. Oro har, egoera horietan aldezlearengana jotzen da eraginpeko aldean arteko elkarguneak prestatu ditzan, konfidentzialtasun egoera batean; horrela, elkarrizketa bidezko konponbide egoki bat bilatu nahi izaten da, auzibidea saiheste aldera.





Argibideak: 2012. eta 2015. urteen bitartean, lerro berdea, AZPko langileei dagokiena, bera estaltzen duen "Beste batzuk" kolektiboaren lerro horiaren berdina izan da.

### 1.7.2. Emakumeek eta gizonek planteaturiko aztergai motak

Jarraian, generoaren araberako aztergaiak aurkezten ditugu. Lehen grafikoak (16. grafikoa) erakusten digunez, emakumeek gizonek baino kontsulta gehiago egiten dituzte oraindik. Kexei dagokienez (17. grafikoa), orain arte alderantzizko joera izan da nagusi; izan ere, 2016an izan ezik, gizonek emakumeek baino kexa gehiago aurkeztu dituzte; 2019. urtean, ordea, datua antzekoa izan da, apur bat altuagoa emakumeen kasuan (emakumeek 16 kexa jarri dituzte, eta gizonek, berriz, 15 kexa). Bitartekaritza eskaerei dagokienez (18. grafikoa), eboluzioaren perspektiba gorabeheratsua da, baina, oro har, gizonen eta emakumeen arabera banatutako datuek oso antzeko balioak dituzte.





### 1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak

Kolektiboak planteatutako arazo motak (edozein eratakoak, ez soilik kexak) zehaztasun handiagoz ezagutzera emateko asmoz, jarraian, hurrenez hurren, ikasleei, irakasle-ikertzaileei, AZPko langileei eta "Beste batzuei" dagozkien lau taula aurkezten ditugu (2, 3, 4 eta 5. taula).

Taulak kategorien eta gai espezifikoen arabera daude antolatuta, aurreko urteetako txostenetan jasotako irizpideari jarraituta. Edonola ere, metatutako esperientzia oinarri hartuta, txosten honetan aldaketa txikiren bat txertatu dugu kategorien sisteman; esate baterako, azken bost urteetan ia maiztasunik izan ez duten kategoriak kendu, eta horiei zegozkien kasuak "Bestelakoak" kategorian sartu ditugu. Hori dela eta, desberdintasun txikiren bat hauteman daiteke taula hauetako urteko datuen eta dagozkion txostenetan aurkeztutakoen artean.

Tauletan, hondo urdinez nabarmentzen dira gutxienez sei urtetan errepikatu diren gaiak. Bestalde, horietan guztietan parentesi artean adierazten da zenbat kasutan esku hartu behar izan duen aldezeak –gaiaren edukia edozein zela ere- zegozkion organoak ez erantzuteagatik. Horrelako kasuetan, sakoneko gaia prozedurazko alderdiekin gurutzatzen da, hala nola idatzi edo errekurtsio bati epean ez erantzutea; horrelakoetan, gaia funtsezko kategoria nagusiaren barruan sartzen da.

Ikasleen kolektiboari dagokion 2. taulari erreparatzen badiogu, 2019an gehien errepikatu diren gaiak honako hauek izan dira:

1. **"Ikasleen ebaluazioa"**: gai hau ikasleen kezka iturri nagusia da, eta, beste urtebetez, hark eragin ditu kontsulta eta kexa gehien kolektibo honetan. Askotariko gaiak planteatu dira: irakasgai edo GRAL/MAL baten kalifikazioarekiko desadostasunaren aurrean jarraitu beharreko prozedurari buruz kontsultatzea, ebaluazio irizpideekin bat ez datorrelako edo irakasgaiko taldeen eta deialdien arteko ekitate printzipioa betetzen ez delako; ebaluazio proben aurrean irakasleak izandako jarreraren aurkako kexa bat jartzea, eskolara joan ezin direnei edo atzerrian daudenei informazio osoa eta zehatza eman ez zaielako; edota, deialdi bati uko egiteko, ahozko azterketa bat erreklamatzeko edo egun berean hainbat azterketa deialdi batera izatearen arazoa konpontzeko ezarritako arauak zalantzan jartzea.
2. **"Matrikula"**: matrikulatzea ekintza bat da, pertsona bat UPV/EHUrekin lotzeko balio duena, ikasketa batzuetan izena emanda eta dagozkion tasak eta prezio publikoak ordainduta. Aurten matrikula dela eta aldezearengana joan diren ikasleek planteatutako gaiak hauek izan dira:
  - GRALean ezin matrikulatzea, graduako irakasgai baten kalifikazioa aktetan jasota ez egoteagatik. Pertsona batek ezin izan zuen amaituta zeukan GRALa defenditu, ezin izan zuelako matrikulatu; izan ere, GRALean matrikulatzeko epea amaitu zen graduako azken irakasgaiaren kalifikazioa aktetan jaso baino lehen. Titulazioaren kreditu guztiak gaindituta zituela egiaztatu ezin zenez, ikasleak ezin izan zuen GRALaren matrikula egin.
  - Ikasturte baten matrikula partziala baliogabetzeko aukera ez izatea. Behar bezala justifikatutako salbuespeneko egoerak direla eta,

ikasketak egiten jarraitu ezin duten pertsonak ikasturte horretako matrikula baliogabetzeko eska dezakete. Arautegian aurreikusitako baliogabetzea, ordea, matrikula osoari dagokio; hortaz, salbuespenezko egoera horiek ikasturtearen zati bat igaro denean ematen badira, dagoeneko irakasgairen bat gaindituta edukita, arautegi akademikoak ez du aukera ematen lauhileko bati, irakasgai batzuei edo soilik practicumari dagokien matrikula baliogabetzeko.

- Aurten doktoregoko ikasle batzuen kexak jaso ditugu. Kontua da ikasketak bost urteko gehiengo epean amaitu ondoren, doktorego programaren seigarren ikasturte akademikoan matrikulatzea eskatu zaiela, doktore tesia gordailuan uzteko data ikasturte berriaren matrikula egiteko epea hasi ondoren ireki zelako. Kontuan hartuta ikasleek matrikula epe arruntean eskatu zutela, ikasketak etenik gabe egin zituztela eta doktorego tesia Batzorde Akademikoak ezarritako gehieneko epean utzi zutela gordailuan, bada, aldezleak egoki iritzi zion seigarren urteko matrikula baliogabetzeari eta horri zegozkion prezio publikoak itzultzeari. Dakigunez, UPV/EHUk ildo horretan jardun du, eta egoera hori etorkizunean errepika ez dadin, Graduondoko Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 17ko bilkuran, erabaki zuen urte bakoitzeko urriaren 30a baino lehen (matrikula-aldia amaitzen den eguna) gordailututako tesiek, urteko azken egun balioduna baino lehen defendatutakoek, ez dutela hurrengo urteko doktorego-matrikula ordainduko.
3. **Bekak/laguntzak:** gai multzo honen barruan sartu dira ikertzaileak UPV/EHU-n prestatzeko 2018ko kontratazio deialdiaren tramitazioan eta erabakian jasotako kexak eta kontsultak. Deialdi horri lotutako hainbat alderdiri buruzko kexak jaso dira, hala nola oinarri batzuen idazketa, tramitazio epeen gehiegizko luzapena, kanpoko agentziek egindako hautagaien ebaluazioa, edo puntuazioak argitaratzean izandako gorabeherak. Horren barruan sartu da, halaber, pertsona baten kexa, zeinari bizileku beka bat ukatu baitzitzaion deialdian eskatutako kreditu guztietan matrikulatu ez zelako. MALean matrikulatzea falta zitzaion, matrikula hori gainerako kredituak gainditu ondoren egiten delako. Graduak eta Graduondokoaren arloko Errektoreordetzak arazo horren berri izan eta berehala jardun zuen, arazoa konpontzeko; horrela, kaltetutako ikasleak beka eskuratzeko beharrezkoak zituen kreditu guztien matrikula egin zuen.
  4. **“Irakaskuntzaren kudeaketa”:** epigrafe honen barruan askotariko gaiak biltzen dira, hala nola ikasleen desadostasuna irakasgai bat emateko moduarekin, edukiarekin eta ebaluazio moduarekin, larunbatetan ebaluazio probak egitearekin edo irakasgai baten eskola teorikoetara joateko eskakizunarekin, beste maila bateko irakasgai baten praktiken ordutegiarekin

bat datorrenean. Azken kasu horretan interesdunari gogoratu zitzaionez, eskolara ez joateak irakasgaia egiteko eta haren ebaluazio objektiboa jasotzeko eskubidea eragozten ez badu ere, gerta daiteke bateragarria ez izatea ebaluazio jarraituaren sistemarekin; hortaz, sistema horri uko egin beharko dio ezarritako prozeduraren arabera, eta azken ebaluazioaren sistemara jo beharko du, non emaitzen ebaluazioa azterketa garai ofizialean egindako proba baten bidez egiten baita.

5. **“Irakasleen portaera”**: ikasleen artean errepikatzen den gai bat da. Irakasleek ikasgelan edo ebaluazio probetan izandako jokaerari buruzko gaiak jasotzen dira, esate baterako, iruzkin desegokiak, ikasgelan ikasleei modu desegokian tratatzea, edo arazoak izatea gradu amaierako lanen zuzendariekin. 2019. urtean, horrelako gaiak graduondoko ikasleek bakarrik planteatu dituzte. Hala, askotariko master ikasketak egiten ari ziren ikasleek lehentasun pertsonaletan oinarritutako tratu desberdina eta arbitrarioa salatu dute, hala ikasgeletan nola ikaskuntzaren ebaluazioan. Horrelako portaerek, probatuko balira, gure unibertsitate arautegian jasotako ekitate, objektibotasun eta gardentasun printzipioak urratuko lituzketela kontuan hartuta, kaltetutako ikasleei gomendatu zitzairen, batetik, gaia masterraren agintariei jakinarazteko, berehala jardun zezaten, eta, bestetik, bere horretan jarraituz gero, Master eta Doktorego Eskolaren aurrean kexa formal bat jartzeko, kasu bakoitza sakon aztertzeke eta beharrezkoak diren neurriak hartzeke, irakasleen abusu mota ororekin lehenbailehen amaitzeke.
6. **“Mugikortasuna”**: gai multzo honetan sartutako kasuak unibertsitateko truke programaren batean parte hartzeke interesa duten graduako ikasleek planteatu zituzten. Zehazki, honako hauek jaso genituen:
  - Ikasle baten kexa norakoa esleitzean izandako akats baten harira, ez baitzitzaion behar bezala zenbatu espediente akademikoaren batez besteko nota. Zegokion errektoreordetzak akatsaren berri izan eta berehala zuzendu zuen; hortaz, ikasleak eskatutako norakoa eskuratu ahal izan zuen.
  - Titulu bateko ikasleen ordezkarien kexa bat, titulu horretan ikasturte bakoitzean Erasmus programan parte har dezaketen gehieneko pertsonen kopurua ezartzen baita. Erabaki hori ikastegiak hartzen du, berea baita Erasmus plazak esleitzeko eskumena. Esleipen irizpidea objektiboa da, merezimendu akademikoan oinarritutakoa, eta behar adinako aurrerapenez argitaratzen da ikastegiaren webgunean, eskaerak egiteko epea ireki baino lehen. Neurria positiboki baloratu zen; izan ere, ikasleak programara hirugarren mailatik sar daitezke, eta, urtero programaren onuradunen gehieneko kopuru bat dagoen arren, titulua egin bitartean era mailakatuan parte hartu ahal izateak ikasle



interesatuen mugikortasuna ahalbidetuko du, eta, gainera, Graduoko azken mailan ikasgelak hustea saihestuko da.

- Planteatutako gainerako gaiak SICUE mugikortasun beka eskatzeko aukera ez izateari lotuta daude, lehendik ERASMUS programa plaza bat eskatu delako, nahiz eta gero plaza horri uko egin. Ikasleek jakin behar dute Erasmus mugikortasun deialdian plaza bat lortzen dutenek ezingo dutela SICUE deialdian parte hartu, plazari uko egiten badiote ere. Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak nabarmenduta argitaratzen du arau hori bi programen deialdian, eta erabaki zentzuzkoa eta neurrikoa dela kontsideratzen da, kudeatu beharreko eskaeren kopuru handia ikusita eta gerora esleitutako plaza bati uko egitean lehendik plaza hori eskatu eta lortu ez dutenei egingo litzaiekeen kaltea kontuan hartuta.

**2. taula. Ikasleek planteatutako aztergai motak**

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Arautegia aplikatzeko modua	-	6	-	-	-	-	1	-
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	-	-	-
Arazoak agintariekin	1	-	2	-	-	-	-	-
Arazoak lankideekin	-	-	-	-	6	-	-	1
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	6 (1)	1	1	2	4	2	2
Bekak	-	3 (1)	3	4 (1)	1	4	4	6
Datuak babestea	1	-	-	1	-	-	-	1
Diziplina arautegia	1	-	1	-	1	-	-	-
Doktorego tesia	2	-	1	5	2	-	1	2
Ebaluazio berezia	6	4	3	5	3 (1)	-	1	-
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	2	1	-
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	1	-	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	2	-	-	-	1	-
Ezgaitasunaren arreta	-	-	-	-	1	1	-	-
Familia kontziliazioa	-	-	-	-	1	-	-	-
Genero indarkeria	-	-	1	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	1	-	4	2	1	3	3	2
Gradura egokitzea	2	3	3	-	-	-	-	-
Greba	-	-	2	-	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	(1)	1 (1)	-	1	1	2	2	-
Ikasleen ebaluazioa	(1)	10	11	16	14	33	8	13
Ikasleen ordezkariak	-	2	3	1	1	-	1	1
Ikasleentzako zerbitzuak	-	-	-	-	-	-	2	-
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	1
Intimitaterako eskubidea	-	1	-	-	-	-	1	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	3	10	15	7	9	4	5
Irakasleen portaera	1	4	4	2	1	2	5	4
Jendurreko arreta	-	3	-	2	-	-	-	2
Kanpoko praktikak	-	2	3	2	2	2	3	1
Lan baldintzak	-	-	-	-	-	3	-	-
Lankideen portaera	-	1	1	-	1	2	1	-
Matrikula	1	4	5	3	4	7	6	7
Matrikula baliogabetzea	-	2	-	1	-	-	1	1
Mugikortasuna	-	-	2	1	-	-	4	4
Ondarezko erantzukizuna	-	-	-	-	-	1	-	-
Presoentzako arreta	-	-	-	1	1 (1)	-	-	-
Prezio publikoak	(1)	2	1	2	2	2	2	1
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	1 (1)	2	-	1	1	-
Tratu baztertzaila	-	-	1	-	-	1	-	-
UPV/EHU n Jarraitzeko Arauak	-	-	-	-	-	-	2	3
Zerbitzuen portaera	-	2	-	-	-	-	-	-
Bestelakoak	2	2	1	-	1	1	-	2
<b>Guztira</b>	<b>33 (3)</b>	<b>62 (3)</b>	<b>68 (1)</b>	<b>67 (1)</b>	<b>54 (2)</b>	<b>81 (0)</b>	<b>57 (0)</b>	<b>59 (0)</b>

Irakasle-ikertzaileen kasuan (3. taula), 2019an gai arruntenak izan dira, aurreko urteetan bezala, alde batetik, "Irakaskuntzaren esleipenari" lotutako arazoak, eta, bestetik, "ordezkapen poltsen eta plazen" kudeaketari eta esleipenari lotutako gaiak. Horiekin batera, aurtan "**aplikazio informatikoan funtzionamenduari**" lotutako kexen eta kontsulten kopurua nabarmendu da. Azken gai horri lotutako kasuetan, kaltetutakoek haien atsekabearen berri ematen zuten, zerbitzu ordainak eskatzeko aplikazioa edo irakasle-ikertzaileen poltsetan merezimenduak eguneratzekoa gaizki funtzionatzen zutelako.

- Lehen aplikazioari dagokionez, irakasle-ikertzaileak oso kritiko ageri dira lekualdatze dietak kudeatzeko aplikazio informatikoarekin; izan ere, zailtasunak dituzte aplikaziora arrakastaz sartzeko, eta haren funtzionamendua hain da motela, ezen paperezko eskaerara itzultzeko eskatu baitute, errazagoa eta azkarragoa delako. UPV/EHUren IKTen arloko gerenteordetzak jakitera eman zigunez, aplikazio hori orain dela gutxi jarri da langileen esku; haren funtzionamendua motela da; eta une jakinetan blokeatzen da; edonola ere, lan egiteko konpromisoa hartu zuten, oraingo tresna ahal den neurrian hobetzeko. Bestalde, paperezko eskaeretara itzultzeko aukera baztertzen da, langileei zerbitzuak ordaintzeko legezko eskakizunei erantzuteko ezinbestekoa delako kudeaketa informatizatua egitea.
- Bigarren aplikazioari dagokionez, irakasle poltsen, deialdien eta lehiaketen bulegoak baieztatu zigun merezimenduak eguneratzeko deialdiaren azken bost egunetan aplikazioa kolapsatuta egon zela; hori dela eta, interesdunek ezin izan zuten igo aurkeztutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa. Dirudienez, arazoa da aplikazioak eusteko zailtasunak dituela hainbeste pertsona ari direnean aldi berean dokumentuak igotzen. Eraginpeko bulegoak gorabehera hori konpontzeko erantzun azkar bat eskaini zuen, merezimenduak eguneratzeko epea luzatuz, aplikazio informatikoaren erruz eskaera bidali gabe inor gera ez zedin.

Lehen aipatu dugunez, irakasle-ikertzaileen kolektiboan "**irakaslanaren banaketa**" behin eta berriro ateratzen den gai bat da. 2019. urtean, irakats betebeharra hautatzean zer eskubide duen ezagutzeko interesa duten irakasleen kontsultak nabarmendu dira berriro. Gai hori, sailtako irakasleen artean ika-mikak sarri sortzen dituena, araututa dago unibertsitateko araudian. Irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegiak, adostasunik izan ezean, irakaslana banatzeko orduan bete beharreko lehentasun irizpideak ezartzen ditu. Irizpide horiek alboratu gabe, arautegiak prestatzen ari diren langileak kontuan hartzeko gonbita egiten digu, irakaslanaren banaketa haien prestakuntzarako egokia izan dadin; arautegiak gogoratzen digu, halaber, behin irakaskuntza osoa banatuta, taldeen banaketa egitean eta ordutegiak prestatzean kontuan hartu behar dela irakasle-ikertzaileen ordutegi malgua izateko eskubidea, lana eta familia kontziliatu ahal izateko.

Aurtengoan ere **“plazen eta ordezkapen poltsen”** gaia nabarmendu da; bloke horretan bildutako gaien artean, irakasle-ikertzaileek zalantzan jartzen dute, besteak beste, plazaren baten hornidura eta ordezkapen poltsa bateko kideen antolakuntza. Irakasle-ikertzaileen aukeraketa jakintza arloko irakasleek osatutako ebaluazio batzordeen bidez egiten da. Batzorde horiek prozesuan lehian den pertsona bakoitzak merezi duen balorazio kuantifikatuari buruzko txosten arrazoitu bat igortzen dute. Balorazio hori epaimahaiaren epai tekniko baten emaitza izaten da, eta ezin da berrikusi, diskrezionaltasun teknikoaren barruan sartzen delako. Edonola ere, azter daiteke ea deialdian araututako alderdiak zuzen bete diren, ea ezarritako prozedura zorrotz bete den, eta ea erabakia nahikoa arrazoitu den, administrazio egintza diskrezional bat izanik.

**3. taula. Irakasle-ikertzaileen aztergaiak**

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Aplikazio informatikoen funtzionamendua	-	-	-	-	-	-	1	5
Arautegia aplikatzeko modua	-	4	2	-	-	2	2	3
Arazoak agintariekin	1	-	1	-	-	-	-	1
Arazoak lankideekin	4	17	13	5	3	3	6	2
Azpiegiturak	-	1	-	-	-	-	-	-
Baimenak	-	-	-	-	-	-	1	-
Barne kontrola	-	-	-	1	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	1	2	1
Bekak	-	-	-	1 (1)	1	2	-	-
Burokrazia	-	-	-	-	2	-	-	-
Datuak babestea	-	-	-	1	-	-	1	2
Diziplina arautegia	-	-	-	-	-	2	2	-
Doktorego tesia	-	-	3 (1)	1	-	2	1	3
Ebaluazio Epaimahaiak hautatzea	-	-	1	-	-	-	-	-
Erosketak	-	-	-	1	-	-	-	-
Errektoregoaren portaera	-	-	1	1	-	-	-	-
Erretiroa	1	-	-	-	-	-	-	-
Etika akademikoa (ikasleak)	-	-	1	1	-	-	1	1
Etika zientifikoa (irakasleak)	1	-	1 (1)	-	-	-	1	2
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	-	-	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	-	-	-	1	-
Familia kontziliazioa	1	-	-	1	-	1	1	-
GAURen arazoak	1	1	-	-	-	-	-	1
Gobernu eta ordezkariak organoak	-	-	-	-	-	-	-	1
Gradura egokitzea	1	-	-	-	-	-	-	-
Greba	-	-	-	-	1	-	-	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	-	-	2	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	-	-	-	-	-	-	-	1
Ikasleen ebaluazioa	-	2 (1)	2 (1)	-	3	3	3	1
Ikasleen portaera	1	3	2	2	2	2	2	2
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-
Ikerketa proiektuak	1	1	-	-	-	-	-	1
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	2	-	-	1	1	1
Irakaslanaren banatzea	5	3	6	4 (1)	8 (2)	5	7 (1)	5
Irakaslanaren ebaluazioa	-	-	-	1	-	2	-	2
Irakasleen ebaluazioa	-	-	-	-	1	-	-	-
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	-	2	-	-	1 (1)	-	-
Irakasleen portaera	-	3	-	-	-	-	2	2
JAP/Kredituen aitortza	2 (1)	2	-	-	2	-	-	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	8	2 (1)	2	2	1	-	-	-
Jendaurreko arreta	-	-	-	-	-	1	1	-
Lan baldintzak	3	2	3	2	6	10 (1)	1	3 (1)
Lanen ebaluazio etikoa	-	-	-	-	1	-	-	-
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	1	1	-
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	2 (1)	-	-	-
Ordezkaritza organoaren portaera	-	-	-	1	-	-	-	-
Osagarri gehigarriak	1	2	1	3	-	3	-	-
PIF ordainsariak	-	1	2	-	-	-	-	-
Plazak/Ordezkapen poltsak	4 (1)	5 (1)	4 (3)	7 (1)	2	8	6	5
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-	-	-	-
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	2	2	1	-	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	1	-	-	-
Tratu berdintasuna	-	-	1	-	-	-	2	1
Zerbitzu ordainak	-	-	-	-	-	-	-	-
Zerbitzuen portaera	1	-	-	-	-	-	-	-
Bestelakoak	3	1	3	4	1	1	2	2
<b>Guztira</b>	<b>40 (2)</b>	<b>50 (3)</b>	<b>56 (6)</b>	<b>42 (3)</b>	<b>41 (3)</b>	<b>51 (2)</b>	<b>48 (1)</b>	<b>48(1)</b>

AZPko langileei dagokienez (4. taula), 2019. urtean "lan baldintzak" eta "lekualdaketen lehiaketa/plazak" nabarmendu dira gehien.

- **"Lan baldintzen"** multzoaren barruan, honako kasu hauek sartu dira:
  - AZPko langile baten eskaera, osasun arrazoiengatik lanpostua aldatzeko eskaera arin bideratzeko. Kudeaketak egin ondoren egiaztatu ahal izan zenez, lekuz aldatzeko eskaera egin zen, eta Prebentzio Zerbitzuaren, sindikatuen eta gerentziaren oniritzia zeukan.
  - Kexa bat, lan kontratu bat amaitzeagatiko kalte ordaineko eskaera bat atzera botatzeko Gerentziaren erabakiaren aurka. Kexa hura atzera bota zuen aldezelek ere, aipatutako kontratua une horretan ez zegoelako amaituta, etena baizik, eta lanpostua erreserbatuta zegoelako.
  - Pertsona baten kexa, nagusiek haren lanpostua aldatzeko egindako jardueren aurka, bidegabetzat eta iraingarritzat jotzen zituelako. Jarduteko modua desegokia izan zela iritzi zitzaion, eta lanpostu horretaz arduratzen den organoarekin harremanetan jarri ginen, lekualdaketa hura egiteko modua gaitzesteko.
  - Antzeko lanpostu bat duten bi pertsonaren kexa, betetako lanpostuari dagokion monografiaren hainbat alderdi aldatzeko eskaeraren aurrean hierarkian gorago dagoen organoak erantzun ez duelako. Kexa horren izapidetzea onartuta, harremanetan jarri ginen eraginpeko organoekin, erantzun bat eman zezatela eskatuz.
- **"Lekualdatze lehiaketa/plazak"** izeneko multzoa nahiko maiz agertzen da, AZPko langileen kolektiboak planteatutako gaien artean. 2019. urtean horren barruan egindako kontsultak eta kexak bi gai hauei lotuta egon dira:
  - AZPko funtzionarioei zerbitzu eginkizunak esleitzeko prozedura barematuaren aplikazioa. Hain zuzen, zalantzan jartzen zuten hainbat plazaren esleipena araudi aplikagarriarekin bat etorrita egiten ari zen edo deialdien difusioa behar bezala egiten ari zen.
  - Administrazio eta zerbitzuetako langileen lan eskaintza publikoaren deialdiak: hainbat pertsonak deialdi horien oinarrien inguruko zalantzak eta desadostasunak planteatu dituzte.

## 4. taula. AZPko langileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	1	-	-	-	2	1
Arautegia ez betetzea	-	1	-	1	-	-	-	-
Arazoak agintariekin	-	-	-	1	-	-	-	-
Arazoak lankideekin	-	1	-	-	1	-	-	-
Azpiegiturak	-	-	1	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	-	1	-
Burokrazia	-	-	-	-	-	-	-	1
Datuak babestea	-	-	-	-	-	-	1	1
Diziplina arautegia	-	-	-	-	1	-	-	-
Errektoregoaren portaera	-	2 (1)	-	-	-	-	-	-
Erretiroa	-	1	-	1 (1)	-	-	-	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	-	1	-	-	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	2	1	2	1	2	1
Ikasleen portaera	-	-	-	1	-	-	1	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	2	-	2	2 (2)	-	-	-	-
Intimitaterako eskubidea	-	-	-	-	-	-	1	-
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	-	-	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	1	-	1	-	-	-	-	-
Lan baldintzak	4	2	2 (1)	5 (1)	6 (1)	3 (1)	4	4(1)
Lankideen portaera	-	-	-	-	-	4	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	2	-	-	1 (1)	-	1	-	-
Plazak/Poltsak/Lekualdatze lehiaketak	2	1	3 (1)	2	-	3(1)	2	6
Prezio publikoak	-	-	-	-	1	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	-	-	1	1
Bestelakoak	-	1	1	1	1	-	-	3
<b>Guztira</b>	<b>11 (0)</b>	<b>9 (1)</b>	<b>14 (2)</b>	<b>16 (5)</b>	<b>14 (1)</b>	<b>12 (2)</b>	<b>15 (0)</b>	<b>18(1)</b>

Azkenik, "Beste batzuk" (5. taula) kategorian, "Ikasketarako sarbidea", "Bekak", "Plazak/Ordezkapen poltsak" eta "Tituluak eta ziurtagiriak" gaietako kasuak aurkeztu dira, aurreko urteetan bezala.

- **"Plazak/Ordezkapen poltsak"**: epigrafe honen barruan bildutako kasuetan, deitutako ordezkapen poltsen edo plazen hautagaiek hautapen prozesuan izandako jardueretik desadostasunak plantatzen dituzte: probak, onartzea/ez-onartzea, merezimenduen balorazioa... Tartean dira, halaber, prozesuen deialdi publikoei edo horietan aplikagarria den araudiari lotuta egindako kontsultak.
- **"Tituluak eta ziurtagiriak"**: multzo honetan, egindako ikasketen titulua edo ziurtagiria lortzeko izandako gorabeherak planteatzen dituzten kasuak biltzen dira.
- **"Ikasketetarako sarbidea"**: hemen jasotako kasuetan, eskatutako ikasketetan onartuak izan ez diren interesdunen desadostasunak adierazten dira, edo ikastegietatik edo bulegoetatik jasotako informazioarekiko atsekabea.

## 5. taula. "Beste batzuk" kategoriaren aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	-	-	1	-
Arazoak agintariekin	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-
Bekak/laguntzak	3 (1)	1	-	1	2	2	1	1
Datuak babestea	-	-	-	1	-	-	-	-
Diziplina arautegia	-	-	-	-	1	1	1	-
Doktorego tesia	-	-	-	-	-	-	-	1
Erretiroa	-	1	-	-	-	-	-	1
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	1	-	1
Etika zientifikoa	-	-	-	-	-	1	-	-
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	-	-	1	-	-
GAURen arazoak	-	-	1	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	-	1	-	-	-
Gradura egokitzea	-	-	-	-	1	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	-	3	7	4	1	3	3	1
Ikasleen ebaluazioa	-	-	1	-	-	-	-	-
Ikasleen portaera	-	-	1	-	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	1	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	-	-	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	-	2	1 (1)	-	-	-	-
Kanpoko praktikak	-	-	-	-	-	-	1	-
Kontratazioa	-	1	-	-	-	-	-	-
Lan baldintzak	-	-	1	-	-	1	-	-
Matrikula	-	-	2	-	-	-	-	-
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	1	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	3	-	-	-	-	-	-	-
Plazak/Ordezkapen poltsak	7 (2)	6	4 (1)	2	1	1	3	3
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-	-	-	-
Prezio publikoak	-	-	1	-	-	1	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	-	1	1	4 (1)	3	2
Unibertsitatera sartzeko probak	-	-	3	1	-	-	2	-
Zerbitzu ordainak	-	-	-	-	-	-	-	1
Bestelakoak	-	1	2	2 (1)	-	3	2	2
<b>Guztira</b>	<b>13 (3)</b>	<b>15 (1)</b>	<b>26 (1)</b>	<b>14 (2)</b>	<b>8 (0)</b>	<b>20 (1)</b>	<b>18 (0)</b>	<b>13(0)</b>

## 1.9. Bulegoaren esku hartzea

Bulegoan planteatu diren 138 aztergaien artetik, kontsulta guztiek (106, jada esan dugunez) erantzun egokia izan zuten.

Aurkeztutako 31 kexen artetik, 3 atzera bota ziren. Aldezleak kexak atzera bota ditzake askotariko arrazoirengatik: kexak aldezlearen zereginekin loturarik ez duela kontsideratzen delako, oraindik prozedura arrunta agortu ez delako (premiazkoak izan gabe), gutxieneko oinarri arrazoitua ez dagoelako, organo eskudunek beren



zereginak betetzean hartutako unibertitate politikako erabakiekiko desadostasunak adierazten dituztelako, erabaki horiek eskubiderik urratzen ez dituztenean, gaia dagoeneko konponduta dagoelako, edo aldezleak gaiaren gaineko eskumenik ez duelako. 2019. urtean, kexa guztiak atzera botatzeko arrazoia izan zen oraindik prozedura arrunta agortu gabe ez egotea.

Beraz, 28 kexa onartu ziren (jasotako % 90,3). Horien artetik, 13 atzera bota ziren, azterketa xehe bat egin ondoren Zuzenbideak kexaren nahiak babesten ez zituela kontsideratu zelako. Beraz, azkenean 15 kexa baietsi ziren (onartutako % 53,6). Seigarren taulan, datu horiek aurreko urteetakoekin konparatzen dira.

Hala, orotara jasotako kexen kopurua gutxitu da aurten, baina azkenean onartutako kexen ehunekoa aurreko urtetako antzekoa izan da, eta onetsitako kexen ehunekoa apur bat igo da.

**6. taula. Jasotako, onartutako eta baietsitako kexak**

	Jasoak	Onartuak (jasotako %)	Baietsiak (onartutako %)
<b>2012</b>	72	49 (% 68,1)	34 (% 69,4)
<b>2013</b>	65	37 (% 56,9)	27 (% 73,0)
<b>2014</b>	74	37 (% 50,0)	21 (% 56,8)
<b>2015</b>	50	32 (% 64,0)	20 (% 62,5)
<b>2016</b>	47	26 (% 55,3)	17 (% 65,4)
<b>2017</b>	41	37 (% 90,2)	18 (% 48,7)
<b>2018</b>	33	30 (% 90,9)	14 (% 46,7)
<b>2019</b>	31	28 (% 90,3)	15 (% 53,6)
<b>Total</b>	413	276 (% 66,8)	166 (% 60,1)

2019an txikia izan da atzera botatutako kexen kopurua. Soilik hiru izan dira. Horrek 2016ra arte gertatutakoarekin kontrastatzen du, ordura arte ohikoa baitzen kexen kopuru handi bat (heren bat edo erdia) atzera botatzea. Edonola ere, atzera botatutako kopurua nahikoa txikia bada ere, horren arrazoiak ohikoak izan dira, bereziki: ezarritako prozedura arrunta lehendik ez agortzea.

Gure bulegoak, bide edo prozedura arrunta agortu ez bada, salbuespenetan (premiazko gai bat denean) esku hartzen du bakarrik, erakundearen Araudiaren arabera. 2019. urtean, aurreko urteetan bezala, behin edo beste esku hartu behar izan dugu bide arruntak agortu baino lehen, gaia premiazkoa zelako betiere; dena dela, guri dagokigun erakunde errespetuak organo eskudunaren ordezkari jarri eragozten

digu, eta, gehienez ere, funtsezkotzat jotzen dugun alderdiren bat nabarmentzen dugu, organo eskudunak kontsideratu edo baloratu dezan.

### 1.9.1. Baietsitako kexen gaiak

Zazpigarren taulak baietsitako kexen gaiak biltzen ditu. Bertan, hondo urdin argiz nabarmentzen dira gutxienez lau urtetan errepikatu direnak.

Ikasleei dagokienez, baietsitako kexak arlo hauetan eman dira: "bekak", "matrikula" eta "mugikortasuna". Irakasle-ikertzaileei dagokionez, kexen gaiak honako hauek izan dira: "arazoak lankideekin", "lan baldintzak", "irakaskuntzaren ebaluazioa", "aplikazio informatikoen funtzionamendua" eta "tratu berdintasuna". AZPko langileen artean baietsitako kexak, berriz, "lan baldintzen" eta "ordezkapen politzen/plazen" arloetan eman dira. Eta amaitzeko, "Beste batzuen" sektorean (UPV/EHUkoak ez diren pertsonak), kexa bat baietsi zen "tituluak eta ziurtagiriak" multzoaren barruan.

## 7. taula. Baietsitako kexen gaiak

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Guztira
Arautegia aplikatzeko modua	-	2	-	-	-	-	-	-	2
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Arazoak lankideekin	-	-	-	-	2	1	-	-	3
Bekak	-	1 (1)	-	1 (1)	-	-	-	1	3 (2)
Doktorego tesia	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Ebaluazio berezia	3	-	-	-	1 (1)	-	-	-	4 (1)
Euskarazko arreta	-	-	-	-	-	1	-	-	1
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	1	-	-	-	-	1
Ikasketetarako sarbidea	4 (1)	-	-	-	-	-	-	-	4 (1)
<b>Ikasleen ebaluazioa</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>-</b>	<b>1</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>10</b>
Intimitaterako eskubidea	-	1	-	-	-	-	1	-	2
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	-	1	-	2
Irakasleen portaera	-	-	-	-	-	-	2	-	2
Jendaurreko arreta	-	2	-	-	-	-	-	-	2
Kanpoko praktikak	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Kredituak baliozkotzea eta aitortzea	-	2 (1)	-	-	-	-	-	-	2 (1)
Matrikula	-	-	-	-	-	1	-	1	2
Mugikortasuna	-	-	-	1	-	-	-	1	2
Presoentzako arreta	-	-	-	-	1 (1)	-	-	-	1 (1)
Prezio publikoak	1	1	-	1	1	-	-	-	4
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	1 (1)
Bestelakoak	1	-	-	-	-	-	-	-	1
<b>Ikasleak guztira</b>	<b>10 (1)</b>	<b>11 (2)</b>	<b>5 (1)</b>	<b>5 (1)</b>	<b>8 (2)</b>	<b>6 (0)</b>	<b>4(0)</b>	<b>3(0)</b>	<b>52(7)</b>
Aplikazio informatikoen funtzionamendua	-	-	-	-	-	-	-	2	2
Arautegia aplikatzeko modua	-	1	1	-	-	2	-	-	4
Arazoak lankideekin	-	3	-	-	-	-	1	1	5
Baimenak	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Bekak	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	1 (1)
Burokrazia	-	-	-	-	2	-	-	-	2
Erosketak	-	-	-	1	-	-	-	-	1
Erretiroa	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Etika zientifikoa (irakasleak)	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	1 (1)
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	-	-	-	1
GAURen arazoak	-	-	-	-	-	-	-	1	1
IHP	-	-	1	-	-	1 (1)	-	-	2 (1)
Ikasleen ebaluazioa	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Ikasleen portaera	1	-	-	-	-	1	-	-	2
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Irakaslana banatzea	2	-	1	1 (1)	2 (2)	-	1	-	7 (3)
Irakaslanaren ebaluazioa	-	-	-	-	-	-	-	2	2
Irakasleen portaera	-	-	-	-	-	-	1	1	2
JAP/Kredituen aitortza	2 (1)	-	-	-	-	-	-	-	2 (1)
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	1	-	-	-	-	-	-	1
Jendaurreko arreta	-	-	-	-	-	1	1	-	2
Lan baldintzak	2	-	-	1	1	2 (1)	-	1(1)	7 (2)
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	1 (1)	-	-	-	1 (1)
Osagarri gehigarriak	-	2	-	-	-	-	-	-	2
PIF ordainsariak	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Plazak/Ordezkapen poltsak	-	2 (1)	3 (1)	2 (1)	-	-	-	-	7 (3)
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Tratu berdintasuna	-	-	-	-	-	-	1	1	2
<b>Irakasle-ikertzaileak guztira</b>	<b>9 (1)</b>	<b>10 (2)</b>	<b>10 (2)</b>	<b>6 (3)</b>	<b>7 (3)</b>	<b>7 (2)</b>	<b>6(0)</b>	<b>9(1)</b>	<b>64(14)</b>

**7. taula. Baietsitako kexen gaiak (jarraipena)**

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Guztira
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Arautegia ez betetzea	-	1	-	-	-	-	-	-	1
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Errektoregoaren portaera	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Erretiroa	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	1 (1)
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	1	-	1	2 (2)	-	-	-	-	4 (2)
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	-	-	-	1
Lan baldintzak	3	1	-	2 (1)	1 (1)	2 (1)	1	2(1)	12 (4)
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	1 (1)	-	-	-	-	2 (1)
Plazak/Poltsak/Lekualdatze lehiaketak	2	-	1 (1)	-	-	1 (1)	-	1	5 (2)
<b>AZPko langileak guztira</b>	<b>7 (0)</b>	<b>3 (1)</b>	<b>3 (1)</b>	<b>6 (5)</b>	<b>2 (1)</b>	<b>3 (2)</b>	<b>3(0)</b>	<b>3(1)</b>	<b>30 (11)</b>
Bekak	1(1)	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	-	-	1	-	-	1
Ikasketetarako sarbidea	-	2	2	1	-	-	-	-	5
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	1 (1)
Kontratazioa	-	1	-	-	-	-	-	-	1
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Plazak/Ordezkapen poltsak	6 (2)	-	1 (1)	-	-	-	-	-	7 (3)
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	-	1 (1)	-	1	2 (1)
Bestelakoak	-	-	-	1 (1)	-	-	1	-	2(1)
<b>Beste batzuk guztira</b>	<b>8 (3)</b>	<b>3</b>	<b>3 (1)</b>	<b>3 (2)</b>	<b>-</b>	<b>2 (1)</b>	<b>1(0)</b>	<b>1(0)</b>	<b>21 (7)</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>34(5)</b>	<b>27 (5)</b>	<b>21 (5)</b>	<b>20 (11)</b>	<b>17 (6)</b>	<b>18 (5)</b>	<b>14(0)</b>	<b>16(2)</b>	<b>167 (38)</b>

**1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak**

Jarraian, 8. taulan, baietsitako kexen jomuga zer organo eta kolektibo izan diren ikus dezakegu (aurrekoetan bezala, lau urtetan edo gehiagotan agertzen direnak nabarmendu dira).

**8. taula. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak**

Kolektiboak eta organoak	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Argitalpen Zerbitzua	-	-	-	-	1	-	-	-
Arkitektura GETeko Zuzendaritza	-	1	-	-	-	-	-	-
AZPko langileak	-	-	-	-	-	1	-	-
Berrikuntz. Gizarte Konprom. eta Kulturgintzaren arloko Errek	-	-	-	-	-	1	-	-
Bilboko Hezkuntza F. Dekanotza	-	-	-	1	-	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza E. Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza E. Zuzendaritza	1	-	-	-	-	-	-	-
Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	-	1
DBHko Irakasleen Prestakuntzako Masterraren Zuzendaritza	1	-	-	-	1	-	-	-
Epaimahai Berezia	-	-	-	-	1	-	-	-
Erosketen atala	-	-	-	1	-	-	-	-
Errektoregoa	4	3	1	1	1	-	-	-
Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errek.	1	-	-	-	-	-	-	-
Farmazia F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-	-	-
Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola	-	-	-	-	-	-	1	-
Gerentea	8	1	-	-	1	1	1	-
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	1	-
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-	-	-
Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetza	6	3	1	-	-	1	1	1
Hezkuntza eta Kirol F.	-	-	-	1	-	-	-	-
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F. Dekanotza	-	-	-	-	-	-	-	1
Idazkaritza Nagusia	1	1	1	3	-	-	1	-
Ikaslea	1	1	-	-	2	2	-	-
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	1	-
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	2	1	1	2	1	-	-	1
IKTen Gerenteordetza	-	-	-	-	-	1	-	3
Ikuskizunaren Arteak eta Zientziak Masterraren Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-	-	-
IMHko Ingeniaritza Dualaren UE. Zuzendaritza	-	-	-	-	-	2	-	-
Irakasle-ikertzaileak	-	5	1	-	3	1	4	2
Irakasle-Ikertzaileen arloko Errektoreordetza	6	3	5	3	3	3	2	2
Itsas Ingeniaritzako Masterraren Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-	-	-
Kanpoko Praktiken Zuzendaritza	-	-	1	-	-	-	-	-
Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errek.	-	-	-	1	1	-	-	1
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	-	1	-	-	1
Master Lanbideratzailearen Zuzendaritza	-	-	-	-	-	2	-	-
Medikuntza eta Erizaintza F. Dekanotza	-	1	1	-	-	-	-	2
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	1	1	3	-	1	1	1
Psikologia F. Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-	-
Psikologia F. Dekanotza	1	-	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariak	2	-	4	-	1	-	1	-
Sarbidea	-	-	2	1	-	-	-	-
UPV/EHU – Osakidetza Batzorde Parekidea	-	-	-	-	-	1	-	-
Zerbitziburua	-	-	1	-	-	-	-	-
Zientzia eta Teknologia F. Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-	-
Zuzenbide F. Dekanotza	-	-	1	1	-	1	-	-
<b>Guztira</b>	<b>34</b>	<b>27</b>	<b>22</b>	<b>20</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>14</b>	<b>16</b>

### 1.10. Jasotako erantzuna

Bulegora iritsi diren kexak bideratzeko jo dugun pertsonen eta organoen erantzuna ona izan da kasu guztietan: baietsitako 16 kexetan, haiengana jo dugunean, pertsonak edo organoak egoki eta zentzuz hartu dituzte bulegoak egindako planteamenduak eta gomendioak (Ikus 9. taula).

**9. taula. Eraginpeko organoek emandako erantzuna**

Erantzuna	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Guztira
Ona	27	22	15	18	15	16	12	16	141
Ona, neurri batean	3	2	3	2	2	1	-	-	13
Txarra	4	3	3	-	-	1	2	-	13
<b>Guztira</b>	<b>34</b>	<b>27</b>	<b>21</b>	<b>20</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>14</b>	<b>16</b>	<b>167</b>

### 1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak

Zerbitzu eta pertsona guztiek prestutasunez lagundu digute, kexa edo kontsulta bati egoki erantzuten saiatzeko haiengana jo dugunean.

Urteko txosten honen aurkezpenak beste behin ematen digun aukeraz baliatuta, eskerrak eman nahi dizkiegu Aldezlearen zerbitzuarekin lankidetzan aritu diren eta gure lana ongi egiten lagundu diguten pertsona guztiei: ikastegi eta sailtako idazkaritzetako langileak, ikastegietako dekanok eta zuzendariak, sailtako zuzendariak, zerbitzuetako arduradunak, Errektorego taldeko kideak, ikasleak, etab.

## 2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk

Kontsultak eta kexak jasotzeko, izapidetzeko eta ebazteko ohiko jardueraz edo bitartekaritza prozesuez gainera, jarraian aipatzen ditugun jarduerak egin ditugu.

### 2.1. G9 taldeko defendatzaileekiko lankidetzak

G9 taldeko defendatzaileek 2019ko maiatzaren 16an eta 17an Madrilen egindako bileran parte hartu genuen, UPV/EHU talde horretako kidea baita. Bileran gai hauek landu ziren:

- 1) "Behar bereziak dituzten ikasleak (behar medikoak, lan egiten duten ikasleak, familia kontziliazioa): arreta dibertsitateari edo pribilegioak?"
- 2) "Iruzur akademikoa: inplikazioak eta ondorioak unibertsitate, irakasle eta ikasleentzat."
- 3) "Matrikularen prezio publikoak eta salbuespenak autonomia erkidego bakoitzean".

Aldezlearen zerbitzuak txostenak prestatzeko lanean parte hartu zuen, txosten bakoitzaren arduradunak bidalitako inkestei erantzunda.

### 2.2. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XXII. Bilkura

Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen XXII. Bilkura, Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziak (CEDU) bultzatu eta Valladolideko Unibertsitateak antolatutakoa, Valladoliden egin zen 2019ko urriaren 2tik 4ra. Bertan gai hauek aztertu ziren:

- 1) "Zuhurtzia vs Defendatzaileen bitarteko jarduerak".
- 2) "Generoa eta ibilbide profesionala unibertsitatean: Capitolina Díaz"
- 3) "Diziplina araudiaren aplikazioaren gaur egungo egoera: tratu desberdintasuna ikasleen artean".

### 2.3. CEDUren XII. Batzar Nagusia

2019ko urriaren 4an Unibertsitate Defendatzaileen XII. Batzar Nagusia egin zen, Valladolideko Unibertsitatean.

## 2.4. CEDUren defendatzaileekiko lankidetzaren foroetan parte hartuta

Unibertsitateko defendatzaileen arteko etengabeko lankidetzaren esparruan, nahiko arrunta izaten da gaiak posta elektronikoaren bidez planteatzea, hainbat gairi buruzko informazioa eskatzeko. 2019. urtean, gure bulegoak parte hartu eta ekarpenak egin ditu, CEDUren defendatzaileek kontsultatutako gaien inguruan. Era berean, G9ko eta CEDUko bileretan aztertutako gaiari buruzko informazioa eskatuz iritsi zaizkigun inkesta guztiei erantzun diegu.

## 2.5. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluetan parte hartzea

Aldezlea Gobernu Kontseiluak egindako bileretara joan da, gonbidatu gisa. Gobernu Kontseiluaren bilera horietan, gure unibertsitatearen eztabaidak, proposamenak eta akordioak hobeto ezagutzeko aukera izan dugu; planteatutako arazoak ezagutu eta ulertu ahal izan ditugu; eta, hori guztia oso baliagarria izan zaigu gure zereginak betetzeko.

## 3. Urteko txosten ekonomikoa

2019ko aurrekontua 20.000 eurokoa izan zen. Hamargarren taulan, gastuen laburpen bat eta urteko ekitaldi ekonomikoa ixteko datari -abenduak 31- dagozkion kontuen egoera ikus daitezke.

### 10. taula. 2019ko laburpen ekonomikoa

<b>Hasierako aurrekontua</b>	<b>20.000,00 €</b>
<b>Gastuak</b>	
Bulegoko materiala, fotokopiak...	1.585,32 €
CEDUko bazkide kuotak	225,00 €
Liburuak	191,86 €
Bidaiak eta dietak	8.888,92 €
Beste gastu batzuk	262,93 €
<b>Gastuak guztira</b>	<b>11.154,03€</b>
<b>Saldoa</b>	<b>8.845,97€</b>



#### 4. Ondorioak eta gomendioak

2019. urtean aurkezturiko kontsultak eta kexak oinarri hartuta, jarraian hainbat gogoeta partekatu nahi ditugu unibertsitateko kideekin, bulegora iritsi diren zenbait gairen harira, baita gure ustez arreta berezia merezi duten beste batzuen harira ere, gizarteari ematen diogun zerbitzua hobetze aldera. Azpimarratu nahi dugu ondoren aipatuko ditugun gaiak ez direla estatistikoki erabakigarriak, eta ezin daitezkeela ulertu UPV/EHUko funtzionamenduaren erakusle gisa. Gai zehatzak dira eta, gehienetan, isolatuak. Halere, iruditzen zaigu gai horien gainean gogoeta bat egitea positiboa izan daitekeela unibertsitate zerbitzuaren funtzionamendua hobetze aldera, hori baita alde learen helburua; edonola ere, jakina da gai horiek ez direla esanguratsuak ez unibertsitatearen jardura orokorrean, ezta planteatzen dituen kolektiboaren barruan ere.

##### ***Berrikusketa in peius***

Ebaluazio proben kalifikazioa berrikusteko ahalmenaren mugek argitu beharreko alderdiak dituzte. Gai horri dagokionez, planteatu izan da ea ikasle batek eska dezaken nota jaistea ebaluazio proba baten berrikuspenean, gutxiegia lortzeko; horrela, irakasgaien berritza matrikulatu, azterketa berritza egin, eta kalifikazio hobea lortu ahal izango du.

Hasteko, gogoratu behar dugu UPV/EHUko Graduoko titulu ofizialetan ikasleak ebaluatzeari buruzko araudiak bi prozedura desberdin aurreikusten dituela: behin-behineko kalifikazioaren berrikuspenean eta, gero, behin betiko kalifikazioaren aurkako erreklamazioa (lehenengoa sailaren aurrean, eta bigarrenengoa, ikastegiaren aurrean). Araudiak ez du modu esplizituan aurreikusten, ez prozedura batean ez bestean, lortutako kalifikazioa jaisteko aukera (ikus 18.2, 22.a eta 22.b artikulua). Edonola ere, gai horretan, "*reformatio in peius*" (erreformatzea okertzeko) debekuaren printzipio orokorra da nagusi, zeina jasota baitago gaur egun Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean. Hala, 88.2 artikulua, interesdunen eskaerari erantzunez hasitako prozeduraren Ebazpenaren edukari dagokionez, honako hau adierazten du: "Interesdunak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena, eta ezin kasutan ezin izango du interesdunaren hasierako egoera okerragotu..." Eta lege testu beraren 119.3 artikulua, administrazio errekurtsioen ebazpenei buruz ari dela, honako hau dio: "...errekurtsio-jartzaileak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena, eta ezin izango du inoiz okerragotu haren hasierako egoera."

Printzipio hori aplikagarria izango litzateke bai kalifikazioak berrikusteko fasean bai erreklamatzeko fasean, zeinek behin-behineko kalifikazio bat mantentzea edo hobetzea ekar baitezakete, baina ez okertzea. Edonola ere, horrek ez du baztertzen irakasleek legez aurreikusitako administrazio egintzak berrikusteko bideetara jotzea, baldin eta akats material bat, egitezko bat edo aritmetiko bat egin duela hautematen badu; aukera hori baliagarria da baita kalifikazioa akta behin betikoa denean ere

(legez tasatutako suposamenduetan, noski) eta ikasleak berrikuspena eskatu ala ez egin daiteke.

Kalifikazioa jaisteko ezintasuna nahiko argia da asmo hori irakaslearen eskariz egiten denean; galdera da ea hori bera ulertu behar den kalifikazioa jaisteko eskaera ikasleak berak egiten duenean.

Galdera horri erantzuteko, berrikuspen prozesuaren abiapuntura jo behar dugula ulertzen dugu. Horri dagokionez, UPV/EHUko Gradu Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiaren 18.2 artikulua honela dio: "Berrikuspena pertsonala eta banakakoa izango da eta bertan, ikasle bakoitzak eskura izango du dagokion ebaluazio proba; horrez gain, lortutako kalifikazioari buruz eman beharreko azalpen guztiak emango zaizkio ikasleari ahoz...". Berrikuspen prozesuaren helburua da egindako ebaluazioa argitzea eta ikasleak horretan aplikatutako irizpideak ezagutzea.

Gauzak horrela, aldezearen iritziz, ezin zaio "suspenditu" behin-behineko kalifikazioan gainditu duen ikasle bati, ezta hurrengo deialdietan nota hori igotzeko asmoz ikasleak berak hala eskatzen duenean ere. Jarduera hori ez dator bat berrikuspen eta erreklamazio prozeduraren helburuarekin.

Edonola ere, hori hala ulertu behar da, araudi sektorialak aukera hori berariaz aurreikusten ez duen neurrian. Agian eman zitekeen Unibertsitatera Sartzeko Batxilergoaren Ebaluazio proben kasuan, non ikasleek hurrengo deialdietan aurkezteko aukera baitute probetako batean lortutako kalifikazioa hobetzeko, deialdi berrian lortutako kalifikazioa aintzat hartuko dela adierazita, betiere aurrekoa baino hobea bada. Kasu horretan ez da kalifikazioa jaisteko berrikusten ikasleak hala eskatuta; aitzitik, gainditzeak ez du ixten proba berriro egiteko aukera.

### ***Doktoregoko matrikula***

Aldezearen kontsideraziopean jarritako gaia honako hau da: doktoregoko ikasketen azken urtean matrikulatu ondoren beren doktorego tesia hurrengo ikasturtearen matrikulatze aldia hasi ondoren gordailuan utzi duten doktoregaiak beste matrikula bat ordainaraztea. Gaia 2018/19 ikasturtean matrikulatutako doktoregai batek planteatu du. Doktoregai hori doktorego ikasketen azken urtea izango dena egiten ari da, gehieneko iraupena agortu baitzaio, luzapenak barne, zeinak doktoregoko ikasketa ofizialak arautzen duen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuak ematen baititu, horrelako ikasketak egiteko. Horren ondorioz, doktoregaiak doktorego tesia gordailuan utzi beharko du 2019ko azaroaren 9a baino lehen. Gauzak horrela, doktoregaiak, ezarritako epearen barruan, doktorego tesia gordailuan uzteko eskaera egin zuen 2019ko urriaren 14an, eta data horretan, UPV/EHUK 2019/20 ikasturtearen matrikulazioa hasi zuen eta, hori dela eta, ikasle horren matrikula berri zuen, oraindik ere doktoregaia zelako.

Kasu partikular horren harira, aldezeak egoera berezi baten gaineko gogoeta egin du, zeinean, ikasleak, oro har, beste ikasturte batean matrikulatzeko behartuta

egon baitaitezke, tesia gordailuan uzteko data beste ikasturte batekoa delako, nahiz eta ikasle horiek UPV/EHUko Graduondokoen Batzordeak ikasturte bakoitzerako ezarritako izena emateko daten barruan doktoregoko programan batean onartzeko eta matrikulatzeko eskaera egin, ikasketa guztiak etenik gabe amaitu, eta doktorego tesia legezko epean gordailuan utzi duten.

UPV/EHUn, Doktoregoko Ikasketen Gestiorako Arautegiaren 6. artikulua honela dio: "Doktoregoko ikasketek, arduraldi osoan, hiru urteko iraupena izango dute gehienera, doktoregaiak doktorego programako lehenengo matrikula egiten duenetik doktorego tesia gordailuan utzi arte." Bestalde, espero daitekeenez, arduraldi osoz matrikulatzen diren eta hasieran emandako epearen barruan doktorego tesia aurkezten duten ikasleek ez dute matrikulatu beharko doktoregoko ikasketetan hiru ikasturtetan baino gehiagotan. Arrazoibide berbera aplikatuko litzaieke doktorego programaren Batzorde Akademikoak epe hori urtebetez edo, salbuespen modura, beste urtebete bat gehiagoz luzatzen dieten ikasleei. Hau da, doktorego ikasketak etenik gabe egiten dituzten eta programaren Batzorde Akademikoak baimendutako epearen barruan tesia gordailuan uzteko eskatzen duten ikasleen kasuan, bat etorri beharko lukete ikasketen iraupen urteek eta doktorego programan matrikulatutako ikasturteek, tesia aurkezteko azken data hurrengo ikasturtekoa izan arren.

Erakunde honek irizten dio horrelako kasuetan ikasleei ez litzaiekeela beste matrikula bat ordainarazi beharko; haatik, tesia aurkezteari lotutako izapidetze guztia azken matrikularekin eskuratutako eskubidetzat har daiteke; izan ere, ekintza horrekin batera, doktorego ikasketak arautzen dituen arautegiaren arabera, amaitutzat ematen dira ikasketak, zeinak UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak adierazitako datetan eskatu baitira, etenik gabe egin baitira eta legezko epean amaitu baitira, doktorego programan egindako lehen matrikula egin zenetik zenbatzen hasita.

### ***Ezgaitasun kupoak graduondoko ikasketetan***

Ezgaitasun maila bat zuen UPV/EHUko ikasle batek gure zerbitzura jo zuen, UPV/EHUko graduondoko ikasketetarako sarbidean ezgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plazen kupoaz galdetzeko. Unibertsitateko araudia berrikusi ondoren, gure unibertsitatean erreserba hori ez dagoela aurreikusita egiaztatu genuen.

Ezgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasunerako eskubidea bermatze aldera, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideen eta haien gizarteratzearen Lege Orokorraren Testu Bateratua onartzen duenak, hainbat arauetan adierazten du botere publikoek bazterkeriaren aurkako neurriak eta ekintza positiboko neurriak ezarriko dituztela, bazterkeria maila handiagoa jasan dezaketen eta ezgaitasuna duten pertsonen mesedetan; neurri horiek izan daitezke bai laguntza osagarriak bai arau, irizpide eta praktika lagungarriak (64.1, 67.1 eta 68.1 art.). Bestalde, Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Oranikoak bere hogeita laugarren xedapen osagarriaren hainbat ataletan

aurreikusten duenez, unibertsitateek ekintza positiboko neurriak hartu beharko dituzte, ikasleen aukera berdintasuna bermatzeko eta haien bazterkeria zuzena nahiz zeharkakoa eragozteko, hala ikastegietarako sarbidean nola haietan egon bitartean. Era berean, Unibertsitateko Ikaslearen Estatutuak ikasle guztien eskubideen berdintasuna ezartzen du, eta eskubide horietako bat da, hain zuzen, ezgaitasun arrazoiengatiko bazterkeriarik eza.

Horrenbestez, gomendatzen dugu UPV/EHUK ezgaitasunen bat duten ikasleentzako plazen portzentaje baten erreserba aurreikustea, master eta doktoregoko ikasketen onarpen sisteman eta prozeduretan, Gradu ikasketen sarbiderako ezarritakoaren antzeko ezaugarriak izango dituen; horrela, antolamendu juridikoak unibertsitatei emandako agindua beteko dute; alegia, ezgaitasunen bat duten ikasleen aukera berdintasuna bermatzea eta haien bazterkeria zuzena edo zeharkakoa eragozteko, ikastegietarako sarbidean eta haietan egon bitartean.

***Eskola orduak aukeratzeko prozedura: "antzinatasun" irizpidea.***

Aurreko urteetan bezala, irakasle-ikertzaileen eskola orduak aukeratzeko prozedurak eztabaidak sortu ditu. Oraingo honetan hizpidera ekarritako gaia honako hau izan da: nola edo noiztik aplikatu behar da "antzinatasun" irizpidea karrerako funtzionarioen kasuan.

Irakaslan banatzeari buruzko arauak irakaslan aldi baterako banatzeko Arautegian daude jasota (Erabakia, 2011ko martxoaren 23koa, UPV/EHUKo Irakasleen errektoreordearena). Aipatutako arautegiaren 18. artikulua ezarritako irizpide orokorraren arabera, irakaslan eraginpeko irakasleen artean banatuko da, akordio bidez. Soilik akordiorik ezean (hainbat irakaslek irakasgai bera hartzeko hautagai direlako) aplikatu behar dira aukeraketarako lehentasun ordena ezartzen duten irizpideak, zeinak jasota baitaude arau horren 18. artikuluen 4. paragrafoan. Jarraian zerrendatzen ditugun irizpide horiek elkarren segidan aplikatu behar dira:

- "a) Karrerako irakasle funtzionarioek eta kontratuko irakasle iraunkorrek lehentasuna dute bitarteko eta aldi baterako irakasleen aldean.
- b) Kategoria akademikorik handieneko irakasleek lehentasuna dute, honako ordena honetan:
- Unibertsitateko katedradunak, irakasle osoak eta ikerketa irakasleak.
  - Unibertsitateko irakasle titularrak, irakasle agregatuak eta ikertzaile doktoreak.
  - Irakasle atxikia.
  - Irakasle lankideak, irakasle elkartuak eta bitarteko irakasle kontratatuak.
  - Laguntzailea.

- c) Diplomaturetan, ingeniaritza teknikoetan eta arkitektura teknikoan izan ezik, irakasle doktoreek lehentasuna dute, saileko arautegiak bestelakorik adierazi ezean titulazio horiei buruz.

Puntu horretara iritsita, funtzionario kategorian edo kidegoan, berdinketak bere horretan jarraitzen badu, antzinasun irizpidea aplikatzen da, jarraian deskribatzen den bezala:

- "d) Kidegoko antzinasun edo kontratu kategoriarik handieneko irakasleak. Antzinasuna neurtzeko, arduraldi partzialeko zerbitzuak haztatu egin behar dira 0,5. koefizientea erabilia."

18. artikulua honetan xedatutakoaren ondorioetarako, azken beharreko irakaskuntza-kategoriari dagokienez, kontuan hartu behar da irakaskuntzaren esleipen iragankorrari eta esleipenari buruzko Erregelamenduaren xedapen iragankorrean ezarritakoa, zeinaren arabera:

"Arautegi honetako 18. artikulua xedatzen duenerako, unibertsitateko irakasle titularren pareko izango dira unibertsitate eskolako katedradunen kidegoko funtzionarioak (desagertze dagoen kidegoa). Bestalde, irakasle lankideen eta irakasle elkartuen pareko izango dira desagertze dauden unibertsitate eskolako irakasle titularren kidegoetako funtzionarioak, Nautikako eskola ofizialetako irakasle numerarioen kidegoetakoak eta desagertze dauden kategorietan kontratatutako gainerako irakasleak."

Kasu honetan, kidego bereko karrerako irakasleen artean sortu da eztabaida. Bada, arau horretaz egin beharreko interpretazioa, gure ustez, honako hau da: kidegoko antzinasuna karrerako funtzionarioaren izendapenetik zenbatu behar da. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak interpretazio hori berresten du, ulertzen baitu gerora hautapen prozesu baten bidez kidegora sartzen diren pertsonen bitarteko funtzionario gisa duten antzinasuna ez baloratzeak ez duela urratzen 23.2 artikulua merezimendu eta gaitasun printzipioa, Konstituzioaren 14. artikulua erlazioan, izan ere: "En otro caso se daría la circunstancia de que quienes aprobaran un proceso selectivo, se verían preteridos en un concurso de traslado por otros funcionarios, que habiendo ingresado posteriormente en el cuerpo, sin embargo, tuvieran una antigüedad mayor al acumular la antigüedad como interinos" (STS, 2014ko ekainaren 9a, FJ 2).

Azken batean, kidegoko antzinasuna karrerako funtzionarioaren izendapen datatik zenbatzea gomendatzen dugu, bitarteko funtzionario gisa lanean igarotako denbora zenbatu gabe.

### ***Jardueren kalifikazioa berrikustea***

Ikasle batek alde zleazengana jo zuen, ebaluazio mistoko irakasgai batean baloratutako zenbait jardueren kalifikazioa berrikusteko aukera ez edukitzearen ondorioz sortutako arazoaren berri emateko; kalifikazioaren zati bat jarduera horiei

zegokien, eta beste zatia, amaierako azterketari. Ebaluazio jarraituaren zatia suspenditzen bazuen, ikasleak azken proban zati horri zegokion azterketa egiteko aukera zuen. Arazoa planteatu zen kalifikazio horren aurkako erreklamazioa egitean; izan ere, saileko Erreklamazio Batzordera jo daiteke bi zatien azken azterketaren kalifikazioa berrikus dezan; han, ordea, ez da onartzen ebaluazioa jarraituan egindako probak berrikustea, ebaluazio hori ordezkatua izan baita ikasleak dagoeneko egiteko aukera izan duen errekupeazio azterketaz.

Arazoa sortzen da, hain zuzen, jardueren bidezko ebaluazio jarraituaren kalifikazioa berrikusteko aukera aurreikusten ez delako. Praktika hori zuzena ez dela irizten diogu. Berrikuspen eskubidea ez da azken azterketara mugatu behar; haatik, kalifikazio horretan eragin duten ebidentzia edo proba guztiak hartu behar ditu. Are gehiago, 2018ko ikasturteko txostenean, irakasleek ebaluazio jarraituaren jarduerak errekupeatzeko sistemak eskaintzeko aukera planteatu dezaten gomendatu genuen, non eta ez den ezinezkoa edo neurritz gaindikoa jardueraren ezaugarriak direla eta. Horretarako, irizpide murriztaile batez jarduteko proposatu genuen, errekupeatu ezin diren jarduerak ez onartuta, justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa dutenean izan ezik.

Gauzak horrela, aztertutako gaian, gainditu ez zuen ikasleari ez zitzaion jarduerak erreklamatzeko aukerarik bermatu, eta errekupeazio probara joan behar izan zuen, Erreklamazio Batzordearen aurrean berrikus daitekeen bakarra baita. Berriro diogu: berrikuspena eskatzeko eta, hala behar bada, erreklamazio bat planteatzeko eskubideak ebaluazio prozesua osatzen duten proba guztiak hartu behar ditu, edozein sistema izanda ere; hortaz, aldezeak dagokion Erreklamazio Batzordearen aurrean erreklamazio bat jartzea gomendatu zuen, horren xedearen berri emanaz, alegia, ebaluazio jarraituaren jarduera guztiak kontuan hartzea. Handik egun batzuetara, ikasleak jakinarazi zigun Ikastegiko Erreklamazio Batzordeak haren eskaera onartu zuela.

***GRALeko matrikula egiteko aukera ez izatea, berandu baina ez garaiz kanpo jarduteagatik.***

Gaia agertu zen dagoeneko 2018. urteko txostenean eta, zoritzarrez, 2019. urtean berriro eman da. Kontua da irakasgaien kalifikazioak berandu jartzeak Gradu Amaierako Lanak matrikulatzea eragozten duela. Jakina denez, GRAL irakasgaien matrikulatu ahal izateko, titulazioaren irakasgai guztiak gaindituta eduki behar dira. Bada, ikasle bat Aldezearen bulegora etorri zen, eta jakinarazi zigun irakasgai guztiak gaindituta zituela baina kalifikazioetako bat behin-behinekoa zela oraindik GRALaren matrikula egiteko epea amaitzeko bezperan.

Irakasleek behin-behineko kalifikazioak argitaratzeko, berrikuspena egiteko eta behin betiko kalifikazioak argitaratzeko dituzten epeak arau bidez daude zehaztuta, eta kasu hartan betetzen ari ziren. Arazoa zera zen, behin betiko kalifikazioak ezartzeko epeak Gradu Amaierako Lanean matrikulatzeko epearen azken eguna

gainditzen zuela. Horren ondorioz, irakasleak jarritako behin betiko kalifikazioak, arauzko epearen barruan egin arren, GRALeko matrikula egitea eragotzi zuen.

Kasuaren larritasuna ikusita, harremanetan jarri ginen ikastegiko dekanotzarekin, ezohiko irtenbideren bat bilatu nahian, baina saialdia alferrekoa izan zen, matrikulatzeko epeak ezarrita zeudelako ikasturtearen hasieratik –Ikastegiko Batzarrak onartuak zituen—, eta horrelakoetan ez dago salbuespenak egiteko aukerarik, aukera berdintasunaren printzipioa urratuko litzatekeelako.

Hori dela eta, ebaluazio proba amaituta eta behin-behinean gaindituta eduki arren, ikasleak azkenean ezin izan zuen GRALerako matrikula egin, kalifikazio hura ez zegoelako aktetan jasota, eta, ondorioz, ez zen betetzen GRALaren matrikula egin ahal izateko baldintza hori.

Gure aburuz, beraz, GRALa matrikulatzeko prozeduretan epeak irakasgai guztien behin betiko kalifikazioa argitaratu aurretik amaitzeak ikasleen babesgabetasun egoera larria sortzen du, ikasleak berak eragin ez duen gertaera baten ondorioak jasan behar baititu. Graduako eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzari arazoari irtenbide bat ematen saiatzeko gomendatzen diogu, eta konponbideak bilatzeko gure lankidetzak eskaintzen diogu.

### ***Arduraldi partzialeko irakasle-ikertzaileen betebeharrak***

Eskuartearen izan dugun beste aztergai bat izan da arduraldi partzialeko irakasle-ikertzaile iraunkorren betebeharren azterketa. Zehazki, adierazi zitzaigun gaia izan zen ea irakasle-ikertzaile horiek nahitaez parte hartu behar duten GRALen zuzendaritzan, lan horiek ebaluatzeko epaimahaien eraketan eta irakasle-ikertzaileen ebaluazio batzordeetan, beren jakintza arloetan. Gaia planteatu zuen irakasleari neurritz kanpokoa iruditzen zitzaion horrelako jarduerak egin behar izatea, arduraldi partzialeko irakasleen kasuan, horrelako jarduerak irakaslana pilatzen dutelako gehiegizko lan karga sortuz; haren planteamenduaren arabera, horrelako jarduerak arduraldi osoko irakasle-ikertzaile iraunkorrek soilik egin behar dituzte.

UPV/EHUko Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Akordioari erreparatuta, interesdunari jakinarazi zitzaion arduraldi partzialeko irakasleen lan jardunaldia haien eskola, tutoretza eta ikasleen laguntza betebeharretatik eratortzen dela eta, horrenbestez, horren parte bat dela GRALaren zuzendaritza eta ebaluazioa, nahitaezko irakaskuntzaren parte baitira biak.

Irakasle-ikertzaileak aukeratzeko batzordeetan parte hartzeko betebeharrari dagokionez, hasiera batean, gaia zalantzazkoa izan daitekeen arren, azkenean ondorioztatu zen horrelako zereginak ezinbestekoak direla sailen funtzionamendurako eta, bestalde, batzorde horiek irakasle kidegoko edo kategoria baliokide bateko pertsonak osatu behar dituztela kontuan hartuta, gure gomendioa izan zen arduraldi partzialeko irakasle-ikertzaileek ere hautapen batzordeetan parte hartzea, objektibotasuna bermatzeko eta interes orokorrak betetzeko, langileen

arduraldiak salbuespenezko tratua justifikatzen duen elementu bat izan gabe. Edonola ere, arduraldi partzialeko irakasleei eskatutako jarduerak irakasle mota horien lanaldia gainditzeko ez dutela bermatu beharko da.

### ***Baliokidetzeak***

Joan den urtean jaso dugu ere baliokidetze prozesuei buruzko keaxaren bat, beste titulu edo zentro batean egindako irakasgai bat ez aitortzearen ondorioz. Horri dagokionez esan behar dugu aldezeak esparru horretan esku hartzeko gaitasun oso mugatua duela; izan ere, baliokidetze erabakia aldezeak berrikusi ezin duen diktamen tekniko baten emaitza da; hortaz, azter dezake ea prozedura araudiarekin bat etorrira egin den, hark ezarritako eskakizun formalak barne hartuta, eta ea ebatzi duen organoak horretarako eskumena duen. Aldezeak maila horretan jardun dezake. Edonola ere, komeni da gogoratzea prozedura orotan egon behar duten izapide eta berme guztiak zuzen egitearen garrantzia, legezko tasun administratiboaren printzipioaren aplikazioan, zeinaren alderdi formalek edo prozedurazkoek egiten baitute administrazio egintza oro bide formalen arabera bideratzea, administrazio jardunaren eraginkortasunaren eta herritarren eskubideen ezinbesteko zaintzaren artean oreka egokia ematen dela bermatzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legearen zioen azalpenean adierazten den moduan.

Baliokidetzei dagokienez, nabarmendu behar dugu horrelako erabaki motetan ematen diren atzerapenei buruzko kexen kopuruak behera egin duela. Hemendik, beraz, horretan inplikaturako instantzia guztiak zoriondu nahi ditugu, eta, bide batez, epeak betetzen direla arduraz zaintzen jarraitzea animatzen ditugu, atzerapenek matrikulari eragin diezaioketelako eta GRALa baldintzatu dezaketelako.

### ***Ebaluazioa***

**Idatzizko azterketei** dagokienez, bereziki gogoratu nahi diegu irakasle-ikertzaileei horiek gordetzeko betebeharra, hurrengo ikasturtea amaitu arte gutxienez, non eta tartean ez den ebatzi gabeko errekurso bat; izan ere, halakorik balego, hura ebatzi arte gordeko beharko dira, Graduak titulazioetan ikasleen ebaluazioa arautzen duen Arautegiaren 16. artikuluan aurreikusten den moduan. Kontuan hartu behar dugu ebaluazioa administrazio prozedura bat dela, eta, hala izanik, ikasleak horren barruan dauden dokumentuak eskuratzeko eskubidea duela, bai eta dokumentuen kopia bat eskuratzekoa ere, haren berrikuspen eta erreklamazio eskubideak erabili ahal izateko.

Era berean, kontuan hartu behar da azterketetan datuen babespean dagoen informazioa dagoela; hortaz, protokolo baten arabera kontserbatu eta suntsitu beharko dira.

**Ahozko azterketei** dagokienez, ebaluazio arautegiak aurreikusten du proba horiek "publikoak" izatea (audientzia publikoa unibertsitateko edozein kiderentzat) eta "ikasle bakoitzak ebaluazio probaren grabazioa eskatzeko eskubidea izatea" (14.



artikuluak). Artikuluak ez du adierazten ikasleak alde zuzenetik azterketaren grabazioa eskatu behar duenik, hori UPV/EHUko zenbait ikastegitan zabalduko praktika bat bada ere. Ikasleak askotan etorri izan dira gure bulegoetara azterketa grabatzeko alde zuzenetik eskatu beharrik sortzen dien deserosotasunaren berri emateko; izan ere, eskaera hori mesfidantza adierazpen gisa interpretatu dezake irakasleak, edo ikasleak. Aldezlearen iritziz, grabazioa lagungarria izan daiteke bai ikaslearentzat, balizko erreklamazio bat planteatzeko proba gisa erabil daitekeen neurrian, bai irakasleentzat, grabazioak objektibotasuna ematen diolako kalifikazioari. Hala izanik, ikaslea lehendik bere azterketaren grabazioa eskatzera derrigortuta ez egotea gomendatzen dugu, eta, ahozko azterketa bat antolatzen den aldiro grabazioa egiteko bitarteko gokiak prest edukitzea, ikasleak eskatzen duenerako.

Ahozko azterketen kasuan, garrantzitsua da, halaber, proben audio fitxategiak gordetzea. Ebaluazio Arautegiak idatzizko azterketetarako ezarritako araubide berbera ezartzen du ahozko probetarako. Hala, ahozko proben grabazioak sailean gorde beharko dira gutxienez hurrengo ikasturtearen amaierara arte, tartean ebatzi gabeko errekurtsio bat dagoenean izan ezik; izan ere, halakorik balego, hura ebatzi arte gorde beharko dira (16. artikulua). Ez litzateke zuzena izango, esate baterako, ikasleak berak azterketa grabatzea telefono mugikorra erabilita.

Ahozko proben inguruan, garrantzitsua da nabarmentzea haien nahitaezko izaera dagokion ikasketen gidaliburuan jaso behar dela. Edonola ere, planteatu daitezke gerora sortutako egoera bati (adibidez, behin-behinean idatzizko azterketak egin ezin dituzten ikasleentzat) edo behar bati erantzuteko (idatzi ezin duten ikasleak).

Bestalde, ahozko proba egin duen ikasleak bere errendimendu akademikoaren ebaluazioa berrikusteko eta erreklamatzeko eskubide osoa du. Horri lotuta, irakasleak ikasleari azaldu ahal izango dio ahozko proban zer egin duen ongi eta zer gaizki, eta emandako kalifikazioa justifikatu eta arrazoitu ahal izango du. Probaren grabazioak, defentsaren unean bildutako ebidentzia guztiekin batera (galderaren garapenaren egiturari lotuta ikasleak egindako oharra, eskemak, krokisak), errendimendu akademikoaren ebaluazioaren objektibotasuna eta ekitatea bermatzen laguntzen du, eta jarduera justifikatu gabeak edo arbitrarioak mugatzen ditu. Berrikuspenaren egintzan, irakasleak ikasleari grabazioa eta bildutako ebidentzia guztiak erakusteko prest egon behar du, idatzizko proben kasuan egiten den modu berean. Halaber, ahal bada, gomendagarria da ahozko proba irakasle baten baino gehiagoren aurrean egitea; halakoetan, parte hartu duten irakasle guztiek egon beharko lukete ere probaren berrikuspenean.

Amaitzeko, eskerrak ematea besterik ez zait geratzen, bai Aldezlearen zerbitzuan konfiantza izan duten guztiei, bai gure lana eta independentzia errespetatu duten unibertsitateko zerbitzu eta agintaritzak akademikoak.

## I. ERANSKINA: 2019ko aztergaien zerrenda

### Gakoak

Kolektiboa	Aztergai mota
IK: Ikasleak	KE: Kexa
IRI: Irakasle-ikertzaileak	KO: Kontsulta
AZP: Administrazio eta zerbitzuetako langileak	B: Bitartekaritza
Beste batzuk: UPV/EHUkoak ez diren pertsonak	

Zk.	Kolektiboa	Aztergai mota	Gaia
957	AZP	KE	Desadostasuna, lanaldi modalitatea eskatzeko prozedurarekin.
958	IK	KO	Tesia amaitzea zailtzen duten arazoak tesi zuzendariarekin.
959	IK	KO	Ebaluazio probak larunbatetan programatzeko aukera.
960	Beste batzuk	KO	Enplegu publikora sartzeari buruzko hainbat zalantza.
961	IK	KE	Desadostasuna Ikaslea Ebaluatzeko Arautegiarekin, azterketa bati uko egiteko epeari dagokionez.
962	IRI	KO	Lehentasun ordena, irakasleei irakaslana banatzean.
963	IRI	KO	Saileko zuzendaria izendatzeko irizpideak, hautagairik ez dagoenean.
964	IRI	KO	Datu pertsonalen trataerari buruzko kontsulta.
965	Beste batzuk	KO	Jardutea, AZPko lan kontratudunak LEPean ez onartzearekiko desadostasunaren aurrean.
966	IRI	KE	UPV/EHUko Ikertaldeentzako Laguntza deialdietan taldearen barruko genero orekari buruzko irizpidea kentzeko eskaera.
967	IRI	KE	Ekipo informatiko korporatiboa berritzeko eskaerari ez erantzutea.
968	AZP	KO	Osasun arrazoiengatik lanpostua aldatzeko prozedura.

969	IRI	KO	Kide anitzeko organoen erregimena.
970	AZP	KE	Datu pertsonalen babesa urratzea, hauteskunde erroldaren argitalpenean.
971	IK	KE	Akats administratiboa, mugikortasun programa baten plazak esleitzean.
972	IK	KO	Hainbat arazo, ikasleen kide anitzeko ordezkari organo batean.
973	IRI	KO	Jarduteko aukera, bitartekaritza bultzatzeko Lege Aurreproiektuaren audientzia eta informazio publikoko tramitean.
974	IRI	KO	Lehentasun irizpideak, irakaslanaren banaketan.
975	IRI	KO	Jardutea, zuzendaria aldatzeko tesi zuzendariaren ezezkoaren aurrean.
976	IRI	KE	Desadostasuna bosturtekoen erabakiarekin, deialdiaren oinarriak ez errespetatzeagatik.
977	IK	KO	SICUE mugikortasun beka bat ezin eskatzea, ERASMUS bekari uko egin ondoren.
978	IRI	KE	Desadostasuna bosturtekoen erabakiarekin, deialdiaren oinarriak ez errespetatzeagatik.
979	IK	KO	Jarduteko modua, irakasleak irakasgai bat modu desegokian ematen duenean.
980	IK	KO	Hainbat arazo, irakaslearen eskolak emateko eta irakasgaia ebaluatzeke moduarekin.
981	IK	KO	Beste mugikortasun plaza bat lortzeko aukerak, ERASMUS programan hasieran esleitutako norakoarekin hainbat arazo izan ondoren.
982	IK	KO	Jardutea, irakasle batek ikasle bati ustez emandako lehentasunezko tratua aurrean.
983	Beste batzuk	B	Lankide ohi batek egindako irainak.
984	IRI	KO	Arduraldi partzialeko irakasle-ikertzaileen betebeharrak akademikoak.

985	Beste batzuk	KE	UPV/EHUko ikastegi batean promozioaren batez besteko nota jasotzen duen ziurtagiri bat lortzeko ezintasuna.
986	IK	KE	Desadostasuna, eskolako ikaskide batek izandako portaera desegoki baten salaketaren aurrean unibertsitateak izandako jarduerarekin.
987	IRI	KE	Zerbitzu ordainak eskatzeko aplikazioaren funtzionamendu okerra.
988	IRI	KE	Ikastegiak ez ditu ongi grabatu GAUREn irakasgai baten taldeen ordutegiak.
989	IK	KO	UPV/EHUUn ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdian emandako eta atzera botatako eskaeren behin-behineko zerrenda gaizki argitaratzea.
990	IK	KO	Balizko konparaziozko bidegabekeria baten aurrean jardutea, UPV/EHUren doktore aurreko laguntzen deialdian euskara tituluaren lorpena egiaztatzeko ezarritako epeetan.
991	IRI	KO	GRAL epaimahai baten kalifikazioa erreklamatzeko modua, zuzendutako lana plagiotzat hartu, eta suspenditu duelako.
992	IK	KO	Jardutea, ikertzaileen prestakuntzarako kontratazio deialdiaren izapidean.
993	IK	KE	Desadostasuna kalifikazioarekin, azterketa egunean emandako ordenagailuan izandako arazo teknikoak kontuan hartu ez direlako.
994	IRI	KE	Desadostasuna, kargu akademikoagatik irakaskuntza betebeharretatik salbuesteko emandako ordezkapenarekin.
995	IK	KO	Irakasle baten portaerari buruzko kexa bat jartzeko prozedura.
996	IRI	KE	Irakasle-ikertzaileen poltsetan merezimenduak eguneratzeko aplikazioaren funtzionamendu okerra.
997	Beste batzuk	KO	Jardutea, graduondoko ikasketak egiteko helburu berberarekin bi laguntza eman direlako.

998	IRI	KE	Lankidearen errespetu falta, kide anitzeko organo baten bilera batean.
999	IRI	KO	Jardutea, lankide batek egindako plagio salaketaren aurrean.
1000	IRI	KO	Sailak jarraitu beharreko prozedura, irakasle-ikertzaileen lanpostuen zerrenda aldatzeko.
1001	AZP	KO	Tituluak eta ziurtagiriak konpultsatzeari buruzko UPV/EHUko araudia betetzea.
1002	AZP	KO	Zerbitzu betekizunetan plazak betetzeari buruzko kontsultak.
1003	Beste batzuk	KO	Aurretiko erretirorako pizgarrien zerga trataera.
1004	IK	KO	Jardutea, doktore aurreko kontrataziorako laguntza deialdiaren erabakiarekiko desadostasunaren aurrean.
1005	AZP	KE	AZPko langileen barne deialdien difusioari buruzko araudia ez betetzea.
1006	IRI	KO	Jardutea, saileko lankideekin izandako arazoaren aurrean.
1007	IRI	KO	Jardutea, sailen berehalako bat egitearen aurrean.
1008	IRI	KO	Lehentasuna, irakaslan banatzeko prozeduran.
1009	IK	KO	Ikastegiko batzordearen aurka jardutea, kalifikazioen erreklamazioari ez erantzuteagatik.
1010	IRI	KO	Irakasle-ikertzaile plazen zehaztapenari buruzko akordioaren aldaketa desegokia, LEP deialdian.
1011	IRI	KO	Arazoak, doktorego tesiaren zuzendariarekin.
1012	IRI	KO	Gune publikoen egokitzapenari buruzko hainbat gai.
1013	IRI	KO	Etika akademikoari buruzko protokoloaren izaera juridikoa.
1014	IK	KO	Graduondoko irakasle baten jardueraren aurkako keza bat adierazteko protokoloa.
1015	IRI	KO	Jardutea, irakasle-ikertzaileen poltsetan merezimenduak eguneratzeko aplikazioaren funtzionamendu okerraren aurrean.

1016	IK	KO	Hainbat zalantza, doktorego programa batean berriro sartzeko aukerei buruz.
1017	IK	KO	Jardutea, irakasle batek atzerrian bizi den ikasle bati irakasgai baten ebaluazioari buruz emandako informazio desegokiaren aurrean.
1018	IRI	KO	Argitaratutako kalifikazioen ofiziozko zuzenketa, akats material bat dela eta.
1019	IK	KE	Desadostasuna, saileko Erreklamazio Batzordearen erabakiarekin.
1020	IK	KE	Unibertsitatearen jarduera, ikasle batek portaera desegoki baten aurrean jarritako salaketa dela eta.
1021	IK	KO	Irakasgai baten ebaluazio sistemarekiko desadostasuna, ohiko deialdian eta ezohikoan desberdina delako.
1022	IK	KO	Azterketaren kopia eskatzeko eskubidea.
1023	IK	KO	Jardutea, ikasle batek gelako ikaskideekin izandako arazoaren aurrean.
1024	IRI	KO	Lehentasun eskubidea, irakaskuntza aukeratzeko eta geratzen zaizkion oporrak eskola-aldian hartzeko.
1025	IK	KO	Desadostasuna, saileko Erreklamazio Batzordearen erabakiarekin.
1026	AZP	KO	Jardutea, hierarkian gorago dagoen organo batek emandako jarraibideekiko desadostasunen aurrean.
1027	IK	KE	Irakasle-ikertzaileek irakaskuntza betebeharrak ez betetzea, graduiko irakasgai baten ebaluazioan.
1028	IK	KO	GRALean ezin matrikulatzea, gaitutako irakasgai baten kalifikazioa aktetan jasota ez egoteagatik.
1029	IK	KO	Informazio pertsonala eta akademikoa zabaltzea, konfidentzialtasun eta sekretu betebeharra urratuz.
1030	Beste batzuk	KO	Tituluak eta ziurtagiriak lortzea.
1031	IRI	KO	Graduondoko ikasketetan plazak erreserbatzea ezgaitasunen bat duten pertsonentzat.

1032	IK	KO	Inkongruentzia, prestakuntza bidean dauden ikertzaileak kontratatzeko laguntzen deialdi baten argitalpenean.
1033	IK	KO	Ahoko azterketa batean jasotako kalifikazioa ikastegiaren aurrean erreklamatzeari.
1034	IRI	KO	Kontratuaren bateragarritasuna ordaindutako beste jarduera batzuekin.
1035	IK	KO	Hainbat zalantza, kredituak aitortzeari eta kalifikazioak erreklamatzeari buruz.
1036	IK	KO	Graduko irakasgai baten ebaluazio sistema baten kontra kexa bat jartzeko prozedura.
1037	Beste batzuk	KE	Unibertsitateak tituluaren sarbideari buruzko informazio gutxiegi ematea, horren ondorioz onarpen notaren azpitik geratuta.
1038	IRI	KO	Jardutea, plaza baterako behin betiko zerrendatik kanpo geratzeagatik, behin-behineko zerrendan onartuta egonda.
1039	IK	KO	Ikasturte batean baimendutakoetan baino kreditu gehiagotan matrikulatzeko eskaera.
1040	IK	KO	Arazoak GRAL baten kalifikazioa aktetara pasatzeko.
1041	IK	KO	Irakasgaietan matrikulatzeko aukera, graduaren zazpigarren urtean.
1042	Beste batzuk	KO	Informazio desegokia ikastegi batean, espedientearen lekualdaketa bidezko sarbide arautegi berriari buruz.
1043	IRI	KO	Desadostasuna, lanpostuaren zereginak betetzeko emandako espazioarekin.
1044	IK	KE	Jasotako informazio anbiguo eta nahasgarriaren ondorioz ezin ditu graduako ikasketak egiten jarraitu, UPV/EHU n Jarrartzeko Arauak aplikatuta.
1045	IK	KO	Jardutea, zuzendariaren oniritzia eskuratu ondoren GRALa planteamendu eta exekuzio akatsengatik ez gairatzeagatik.
1046	AZP	KE	Galderen zerrenda zuzentzea, AZPko lan kontratadunen LEPe an.

1047	IRI	KO	Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserbatutako irakasle-ikertzaileen plazen eskaintza publikoa.
1048	AZP	KE	Lan kontratu bat amaitzeagatik kalte ordaina ordaintzeko eskaera atzera botatzea.
1049	IRI	KO	Ordezkapen poltsetatik deitua izateko aukera, arduraldi osoko eta arduraldi partzialeko beharrei erantzuteko.
1050	AZP	KO	Jardutea, zerbitzu betekizunetan ordezkapen behar bat estaltzearekiko desadostasunaren aurrean.
1051	AZP	KO	Ordezkapen poltsetan sartzeko hautapen prozesu batean ariketa praktikoa egiten jarraitzeko aukera ez izatea, kontsultzeko dokumentazioari buruzko arauak ez betetzeagatik.
1052	IK	KO	MAL epaimahai bateko irakasle baten jardunak sortutako arazoak.
1053	IK	KO	Graduko ikasketetan kredituen matrikula egiteagatik tasa/prezio publikoen igoera.
1054	IRI	KE	Ebaluatutako lanaren zuzendariaren portaera desegokia, GRALeko epaimahaiaren aurrean.
1055	IRI	KO	Jardutea, ikasle batek irakasle batekin ustez izandako portaera desegokiaren aurrean.
1056	IRI	KO	Jardutea, liburu bat argitaratu delako egileetako batek horren berri izan gabe.
1057	AZP	KO	Jardutea, zerbitzu betekizunetan ordezkapen bat estaltzearekiko desadostasunaren aurrean.
1058	AZP	KO	UPV/EHUko zerbitzu batentzako zenbait eskaera Erregistro Orokorraren bidez bidaltzeko aukera.
1059	IK	KO	Irakasgai baten nahitaezko eskoletara joateko aukerarik ez izatea, beste baten praktiken ordutegi berean delako.
1060	IRI	KO	Arazoak, ikasleek gelan duten portaerarekin.
1061	IRI	KO	Ikerketa proiektu batean ikertzaile gisa agertzeko aukera.
1062	IK	KO	Aukera askeko kredituen amortizazioari buruz Ikastegiko Idazkaritzak emandako informazio osatugabea.



1063	IK	KE	Desadostasuna, doktorego tasa akademikoen araudiarekin.
1064	Beste batzuk	KO	Eskolara entzule gisa joateko eskubideari buruzko kontsulta.
1065	IRI	KO	Jarduteko modua, doktorego tesiaren zuzendariarekin izandako desadostasunen aurrean.
1066	IK	KO	Desadostasuna, irakasgaiak ez baliokidetzeagatik.
1067	IK	KO	Desadostasuna, bigarren lauhilekoaren matrikula baliogabetzeko aukera ez izateagatik.
1068	IK	KO	Arazoak, irakasleak ikasgelan duen portaerarekin.
1069	IK	KO	Masterraren zuzendaritzak ez dio norako ikastegi bat ematen nahitaezko praktikak egiteko.
1070	Beste batzuk	KO	Tesi zuzendariaren abusuzko portaerak ikertzeko prozedura.
1071	Beste batzuk	KE	AZPko langileen hautapen prozesuen probak hiru campusetan egiteko aukera.
1072	IK	KO	Practicumera sartzeko euskara eskakizunei buruzko informazioa falta da.
1073	IRI	KO	Banatutako irakaslanaren ordutegia aldatzea, familia kontziliazioa dela eta.
1074	IK	KO	Ikasketak beste unibertsitate batean jarraitzeko aukera, UPV/EHUn Jarraitzeko Araua agortu ondoren.
1075	IK	KO	Desadostasuna, practicumaren kalifikazioaren erreklamazioaren erabakiarekin.
1076	IRI	KO	Jardutea, irakasgai baten irakaskuntzaren aurka ikasleek behin eta berriro jarritako kexen aurrean.
1077	AZP	KE	Hierarkian gorago dagoen pertsonaren jarduera desegokia lanpostua lekuz aldatzean.
1078	AZP	KO	Titulu eskakizunak eta profila aldatzeko aukera, lanpostuen zerrendako plaza batean.
1079	IRI	KO	Arazoak, zerbitzu ordainak kudeatzeko aplikaziora sartzeko.

1080	IK	KO	Kredituak aitortu ondoren, hautazko irakasgaien matrikula baliogabetzeko aukera.
1081	Beste batzuk	KO	Irakasle-ikertzaileak aukeratzeko epaimahai batean egoteari dagozkion zerbitzu ordainak kobratzeko arazoak.
1082	AZP	KE	Arazoak, hierarkian gorago dagoen pertsonarekin.
1083	IK	KE	Gradu bateko ikasleen kupoa, Erasmus programara sartzeko.
1084	IK	KO	Jarduteko modua, nahitaezko bi irakasgaien azterketak egun berean direnean.
1085	IRI	KO	Aitatasun baimena luzatzearen ondorioak, kanpo finantzaketa bidez ikertzaileak aldi baterako kontratatzeko unean.
1086	IK	KE	Bizilekurako beka ukatzea, master bateko MALen kredituak matrikulatzeko aukera ez izateagatik.
1087	AZP	KO	AZPko langileen LEParen oinarri espezifikoei buruzko kontsulta.
1088	IRI	KO	Datu pertsonalak dibulгатzea baimenik gabe.
1089	IK	KO	Desadostasuna, graduiko irakasgai batean emandako kalifikazioarekin.
1090	AZP	KO	Hainbat zalantza, ordainsari osagarriari eta Gizarte Segurantzaren kotizazioari buruz.
1091	IK	KO	Desadostasuna, doktoregoko ikasketen seigarren urtea matrikulatzeko betebeharra dela eta.
1092	IK	KO	Errekurritutako ebazpenarekiko inkongruentea den gorako errekurtsioaren ebazpena.
1093	IK	KO	Arrazoi justifikatuengatik practicumaren matrikula baliogabetzeko eta tasak itzultzeko aukerarik ez izatea.
1094	IRI	KO	Zerbitzu ordainak eskatzeko aplikazioaren funtzionamendu okerra.